

Abokatutzan sartzeko azterketarako 2026ko deialdia

ABOKATUTZAN ARITZEKO GAITASUN PROFESIONALA EBALUATZEKO PROBA. 2026KO DEIALDIA.

PLANTILLA DEFINITIVA

ONLINE MODALITATEA

OHARRA: Online modalitatea denez eta ausazko galde-erantzunak daudenez, txantiloi honetan, galdera-erantzunen eduki osoa jaso da, eta erantzun zuzena gorriz markatu.

A. ABOKATUTZAN ARITZEARI BURUZKO GAI KOMUNAK

1 - Maria abokatua da, eta Salamancan du egoitza profesionala. Zein abokatu-elkargotan sartu behar du?
a) Espainiako edozein abokatu-elkargotan.
b) Salamancako Abokatu Elkargoan, eta ezin izango da inongo beste elkargotan sartu.
c) Salamancako Abokatu Elkargoan; gainera, aukera izango du beste edozein elkargotan sartzeko, inskribatutako abokatu gisa.
d) Salamancako Abokatu Elkargoan; gainera, aukera izango du beste edozein elkargotan sartzeko, abokatu egoiliar gisa.

2 - Javierri diziplina-zehapena ezarri diote, abokatu-elkargotik kanporatuta. Gutxienez zer epe igaro beharko da lanbidean jarduteko birgaitzea lortzeko?
a) Bost urteko epea, kanporatze-zehapena exekutatu denetik aurrera.
b) Hamar urteko epea, kanporatze-zehapena exekutatu denetik aurrera.
c) Zehapenean ezarri zaion epea.
d) Lanbidean jarduteko birgaitzea lortzeko, ez da eskatzen epe jakinik igarotzea, baina egiaztatu beharko da elkargo bakoitzak deontologia profesionalaren arloan oro har ezartzen dituen prestakuntza-jarduerak gainditu izana, bai eta profesionalak duintasunik gabe eta mespretxuz ez jardun izana balio eta betebehar profesional eta deontologikoen aurka ere.

3 - Nola finkatzen da abokatuek beren zerbitzuengatik jaso ditzaketen ordainsarien zenbatekoa?
a) Bezeroaren eta abokatuaren artean adosten da, abokatuaren abokatu-elkargoak onartutako nahitaezko arantzelean oinarrituta.
b) Libreki adostuko dute bezeroaren eta abokatuaren artean, arau deontologikoak eta lehiari eta lehia desleialari buruzko arauak beteta.
c) Bezeroaren eta abokatuaren artean adosten da, Justizia Administrazioaren letraduak prozesuan egindako kostu-tasazioan oinarrituta, tasazio hori egin ondoren.
d) Abokatua sartuta dagoen abokatu-elkargoaren ebazpen baten bidez finkatzen da.

4 - Ana, Francisco eta Paula abokatuak dira, eta elkarrekin lan egiten dute, Francisco titular duen abokatu-bulego batean. Manuelek, halaber, bulegoan laguntzen du, noizean behin bulegoko auzigai batzuk bere gain hartuta, eskuordetzaz. Noren alde sortuko dira Manuelek egiten dituen jarduketetan bezeroek ordaindutako ordainsariak?
a) Manuelen alde.
b) Frantziskoren alde.
c) Ana, Francisco eta Paularen alde.
d) Bulegoaren alde, bulego kolektibo gisa.

5 - Josek demanda bat aurkeztea pentsatu du, Badajozeko Auzialdiko Auzitegiak aztertu beharko duena. Hala ere, auzitan aritzeko baliabiderik ez duenez, doako laguntza juridikorako eskubidea aitor dakion eskatzea pentsatu du. Zer organok ebatzi beharko du doako laguntza juridikorako eskubidea aitortzea edo ez?
a) Dagokion Doako Laguntza Juridikoaren Batzordeak.
b) Presidentetzako, Justiziako eta Gorteekiko Harremanetarako Ministerioak.
c) Auziaz arduratu behar duen jurisdikzio-organoak.
d) Badajozeko Abokatu Elkargoak.

6 - Cristinak demanda bat aurkeztu nahi du, eta horretarako, Prozedura Zibilaren Legearen arabera, nahitaezkoa da abokatu baten eta prokuradore baten esku-hartzea. Gainera, akzioa laster preskribatuko da. Hala ere, ez du auzitan aritzeko baliabiderik. Zer egin dezake preskripzio-epea eteteko?
a) Demanda aurkeztu, abokatuaren eta prokuradorearen esku-hartzerik gabe, haien zerbitzuak kontratatu ezina justifikatuta.
b) Doako laguntza juridikorako eskubidea aitortzeko eskaera aurkeztu, prozesua hasi aurretik.
c) Demanda aurkeztu, abokatuaren eta prokuradorearen esku-hartzerik gabe, eta, aldi berean, doako laguntza juridikorako eskubidea aitortzeko eskatu.
d) Doako laguntza juridikorako eskubidea aitortzeko eskaera aurkeztu, behin demanda formalki onartu ez denean abokatuaren eta prokuradorearen esku-hartzerik izan ez delako.

7 - ANULADA

8 - Abokatuak esku hartzen ari den gaiaren egoeraren berri eman behar al dio bezeroari?
a) Bai.
b) Hala egin dezake, baina ez da betebeharra.
c) Ez, sekretua gordetzeko betebeharra baitu.
d) Bai, astean behin gutxienez.

9 - Silvia abokatua da, eta bulegoa 5.000 biztanletik beherako udalerri batean dauka. Udalerriko bizilagun bat, Antonio, haren bulegora joan da diru-kopuru handia zor dion hartzekodun bat demandatzeko asmoz, eta, horretarako, Silviaren zerbitzuak eskatu ditu. Ba al du Silviak kasua bere gain hartzeko betebeharrik?
a) Ez, salbu eta udalerrian ez badago beste abokaturik, kasua bere gain har dezakeenik.
b) Bai, salbu eta Antoniok baliatu nahi duen uzia bideraezina dela justifikatzen badu.
c) Ez, baina onartzen badu, ezin izango dio uko egin Antonioren defentsari, harik eta auzigaia amaitu arte.
d) Ez, askatasuna du auzigaiaren zuzendaritza hartzea onartzeko edo baztertzeko.

10 - Joaquina eta Carmela ahizpek (haien artean ez dago interes-gatazkarik, ezta halakorik gertatzeko arriskurik ere) erabaki dute hirugarren anaia bat, Esteban, demandatzea, eta, horretarako, Felix abokatuak lan egiten duen bulegora joan dira. Felixek parte har al dezake auzi horretan, bai Joaquinaren kontura, bai Carmelaren kontura?
a) Bai, baina soilik Joaquinak eta Carmelak berariazko eta idatzizko baimena ematen badute bulegoak biak defenda ditzan.
b) Bai, baina soilik ahizpa baten defentsa bere gain hartzen badu, eta beste ahizparen defentsa laguntzaile baten esku uzten badu.
c) Bai, beti.
d) Bai, baina auzigaia ez den gaia bada soilik.

11 - Fernando eta Claudio abokatuak dira, eta bezero bat defendatzen dute elkarrekin, hirugarren baten aurka zenbateko bat erreklamatzeko auzi batean. Biek batera esku har al dezakete ikustaldietan?
a) Ez, abokatu berak esku hartu beharko du beti.
b) Ez, baina haien artean txandakatu daitezke.
c) Bai, baldin eta batera esku-hartzeak behar besteko justifikazioa badu organo judizialaren iritziz.
d) Ez, salbu eta, ikustaldian egin beharreko jarduketa dela-eta, bietako batek besteari lagundu behar badio.

12 - Luis abokatua da. Marina harengana jo da, prozesu baten hasierari edo hura saihesteko moduari buruzko aholkularitza jasotzera. Kasua aztertzean, Luisek ikusi du gertaerek kapital-zuriketarekin zerikusia izan dezaketela, zantzuen arabera. Luis behartuta al dago gertakariak Kapital Zuritzearen eta Arau-hauste Monetarioen Prebentzio Batzordearen Zerbitzu Exekutiboari (Sepblac) komunikatzera?
a) Bai, eta komunikazio horren berri eman behar dio Marinari.
b) Ez, inoiz ere ez.
c) Bai, eta Marinari horren berri eman gabe.
d) Ez, non eta ez duen uste egitateak arau-hauste penala izan daitezkeela.

13 - Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren arabera, subjektu hauetako zeinek jar dezake errekurtsoa legegintzako egintza baten aurka?
a) Europako Arartekoak.
b) Estatu kideek, Europako Parlamentuak, Kontseiluak eta Batzordeak bakarrik.
c) Legegintzako egintzak zuzenean eta banaka eragiten dion pertsona fisiko edo juridiko orok.
d) Soilik estatu kideek, Europako Parlamentuak, Kontseiluak eta Batzordeak, bai eta Kontu Auzitegiak, Europako Banku Zentralak eta Eskualdeetako Lantaldeak ere, nork bere prerrogatibak babesteko.

14 - Abokatu-elkargo batek arbitraje-funtzioak bete al ditzake?
a) Bai, baina elkargokideen artean sortzen diren gaietan bakarrik.
b) Bai, baina elkargokideen artean edo elkargokideen eta bezeroen artean sortzen diren gaietan bakarrik.
c) Bai, baina elkargokideen eta bezeroen artean sortzen diren gaietan bakarrik.
d) Bai, aurkezten zaizkion gaietan.

15 - Espainiako Abokatutzaren Estatutu Orokorraren arabera, zer gobernu-organo behar dira nahitaez abokatu-elkargo batean?
a) Dekanoa, gobernu-batzarra eta batzar nagusia.

b) Dekanoa, gobernu-batzarra, batzar nagusia eta diziplina-batzordea.
c) Dekanoa, gobernu-batzarra, batzar nagusia, berme-batzordea eta diziplina-batzordea.
d) Dekanoa, gobernu-batzarra, batzar nagusia eta berme-batzordea.

16 - Nork ebatzi behar ditu jurisdikzio-ordena desberdineko auzitegien artean sor daitezkeen eskumen-gatazkak?
a) Jurisdikzio Gatazken Auzitegiak.
b) Goragoko hurren organo erkideak.
c) Auzitegi Goreneko sala berezi batek.
d) Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko sala berezi batek, salbu eta gatazkak justizia-auzitegi baten eta Auzitegi Nazionalaren edo Auzitegi Gorenaren artean edo azken horien artean sortzen badira; kasu horretan, Auzitegi Goreneko sala berezi batek ebatziko ditu.

17 - Nazioarteko Justizia Gortearen Estatutuaren arabera, nor izan daitezke alderdi, Gortearen aurrean bideratutako auzietan?
a) Estatuak bakarrik.
b) Estatuak, nazioarteko erakundeak eta estatu baten edo nazioarteko erakunde baten egintza baten hartzaile zuzenak diren pertsona fisiko edo juridikoak.
c) Estatuak eta nazioarteko erakundeak.
d) Estatuak, nazioarteko erakundeak eta gobernuz kanpoko erakundeak.

18 - Pedrok kreditu bat zor dio Juani, eta Juanek hura bide zibilean demandatzea pentsatu du, kreditua ordain diezaion eskatzeko. Auzigaiaren munta 1.500 eurokoa da. Prozedurarako baldintza bitarteko egoki bat da gatazkak aldez aurretik konpontzeko. Prozedura hori betetzeko, Juanek eskaintza lotesle bat formulatzeko aukera baloratu du. Nahitaezkoa al da letradu baten laguntza, eskaintza hori egiteko?
a) Bai, nahitaezkoa baita gatazkak konpontzeko bitarteko egoki guztietan.
b) Bai; izan ere, eskaintza loteslea letradu-laguntza nahitaezko duen gatazkak konpontzeko bitarteko egoki bakarra da.
c) Ez, auzigaiaren zenbatekoa ez baita bi mila eurotik gorakoa.
d) Ez, letradu-laguntza ez baita inoiz nahitaezkoa gatazkak konpontzeko bitarteko egokietan.

19 - Organo hauetako zeini dagokio beti abokatu-elkargo baten legezko ordezkaritza?
a) Gobernu Batzarrari, kide anitzeko organo gisa.
b) Gobernu Batzarreko kide bakoitzari.
c) Batzar Nagusiak izendatutako ahalordedunei.
d) Dekanoari.

20 - Martinek asmoa du demanda zibil bat aurkeztea, administrazio publiko baten aurka, erreibindikazio-akzio bat baliatuz. Justizia Zerbitzu Publikoaren Efizientziaren arloko Neurriei buruzko urtarrilaren 2ko 1/2025 Lege Organikoarekin bat etorriz demanda onargarria izan dadin, beharrezkoa al da aldez aurretik gatazkak konpontzeko bitarteko egokiren batera jotzeko prozedurarako baldintza betetzea?
a) Ez, demanda jarri nahi zaion erakundea erakunde demandatua sektore publikokoa baita.
b) Bai; izan ere, aldez aurretik gatazkak konpontzeko bitarteko egokiren batera jotzea beti da prozedurarako baldintza, demanda onargarria izan dadin.
c) Bai; izan ere, aldez aurretik gatazkak konpontzeko bitarteko egokiren batera jotzea beti da prozedurarako baldintza, gai zibileko eta merkataritza-arloko demanda onargarria izan dadin.
d) Bai, baldin eta negoziazioaren objektua eta auziaren objektua berdinak badira.

21 - Matilde eta Jeronimok negoziatzeari ekin diote, gatazkak konpontzeko bitarteko egoki baten esparruan. Zenbait negoziazioren ondoren, Matildek Jeronimorengana jo du, idatziz, negoziazioak amaitutzat jotzeko, eta jasota geratu da bere borondatea hori dela komunikatzeko egiten duen ahalegina. Zer ondorio dauka horrek?
a) Matildek ezin izango du Jeronimo demandatu, gatazka epaiketaz kanpo konpontzeari uko egin diolako.
b) Akzioen preskripzio- edo iraungitze-epearen zenbaketa berriz hasiko da edo berriro irekiko da, hurrenez hurren.
c) Akzioen preskripzio- edo iraungitze-epearen zenbaketa ez da berriz hasiko edo ez da berriro irekiko, hurrenez hurren, Jeronimok idazkia jasotzen duenetik hogeita hamar egun natural igaro arte.
d) Matildek negoziazio-prozesua amaitu eta bi urteko epean aurkeztu beharko du demanda, prozedurarako baldintza betetzat jo ahal izateko.

22 - Gastu hauetatik, zein sartzen da kostuen kontzeptuan?
a) Auzitegiak erregistro publikoei erreklamatutako kopiak ordaintzeko gastuak.
b) Kontrako alderdia jarduketa prozesalak egin behar diren tokira joateko gastuak.
c) Jarduketak garatzen diren jurisdikzio-organoaren funtzionamendu-gastuak.
d) Errekurtsoak aurkezteko beharrezkoak diren gordailuen gastuak.

23.– Kostuen tasazioaz ari garela, baieztapen hauetatik zein da zuzena?
a) Tasazioa aurkaratzen ez bada, ezin izango da errekurtsorik jarri hura onartzen duen ebazpenaren aurka.
b) Partida berriak sartzea onartu ahal izango da, baita kostuen tasazioa alderdiei helarazi ondoren ere, baldin eta kostu prozesaltzat hartzen diren gastuak sortzen badira.
c) Kostuak ordaintzeko kondenaren onuradun den alderdiak ezin du tasazioa aurkaratu.
d) Justizia Administrazioaren letraduari dagokio tasazioa egitea eta onartzea.

24 – Defentsa Eskubidearen Lege Organikoaren arabera, baieztapen hauetatik zein da zuzena?
a) Defentsa-eskubideak barnean hartzen ditu ordenamendu juridikoan aitortutako ahalmen eta berme guztiak, pertsona guztiei aukera ematen dietenak, aldez aurretik ezarritako prozedura baten arabera, beren eskubide, askatasun eta interes legitimoak babestu eta baliarazteko justizia-auzitegien aurreko gatazketan bakarrik.
b) Defentsa-eskubideak barnean hartzen ditu ordenamendu juridikoan aitortutako ahalmen eta berme guztiak, pertsona guztiei aukera ematen dietenak, aldez aurretik ezarritako prozedura baten arabera, beren eskubide, askatasun eta interes legitimoak babestu eta baliarazteko, dela auzitegien eta administrazio publikoen aurreko gatazketan, Ministerio Fiskalaren ikerketa-eginbideak barne, dela aplikatzekoa den araudian erregulatutako gatazkak konpontzeko bitarteko egokietan.
c) Defentsa-eskubideak barnean hartzen ditu ordenamendu juridikoan aitortutako ahalmen eta berme guztiak, pertsona guztiei aukera ematen dietenak, aldez aurretik ezarritako prozedura baten arabera, beren eskubide, askatasun eta interes legitimoak babestu eta baliarazteko, soilik justizia-auzitegien aurreko gatazketan edo gatazkak konpontzeko bitarteko egokietan.
d) Defentsa-eskubideak barnean hartzen ditu ordenamendu juridikoan aitortutako ahalmen eta berme guztiak, pertsona guztiei aukera ematen dietenak, aldez aurretik ezarritako prozedura baten arabera, beren eskubide, askatasun eta interes legitimoak babestu eta baliarazteko auzitegien eta administrazio publikoen aurreko gatazketan edo parlamentuetako ikerketa-batzordeen agerraldietan.

25 - Defentsa Eskubidearen Lege Organikoaren arabera, zer organok eman behar ditu Espainiako Abokatutzaren Kode Deontologikoa interpretatzeko zirkularrak?
a) Espainiako Abokatutzaren Kontseilu Nagusiaren Batzorde Iraunkorrak.
b) Espainiako Abokatutzaren Kontseilu Nagusiaren Osoko Bilkurak.
c) Espainiako Abokatutzaren Kontseilu Nagusiaren Osoko Bilkurak eta kontseilu autonomiko bakoitzak, zeinek bere eremuan.
d) Espainiako Abokatutzaren Kongresuak.

26 - Defentsa Eskubidearen Lege Organikoaren arabera, kasu hauetako zeinetan du eskumena Abokatutzaren kontseilu autonomiko batek arlo deontologikoan zehatzeko?
a) Zehatua bere kideetako bat denean eta kide gisa jarduten duenean.
b) Zehatuak hautsitako araua dagokion autonomia-erkidegotik datorrenean.
c) Kasuak autonomia-erkidego bateko abokatu-elkargo baten lurralde-eskumena gainditzen duenean, pertsona-multzo orokor bati kalte ekonomikoa eragiten diolako.
d) Defentsa Eskubidearen Lege Organikoak ez du horri buruzko kasurik aurreikusten, eta dagokion legeria autonomikora jo beharra aipatzen du.

27 - Administrazioarekiko auzien jurisdikzio-ordenak eskumena du administrazioaren ondare-erantzukizunarekin lotuta aurkezten diren uziez arduratzeko; eskumen horretaz ari garela, baieztapen hauetatik zein da zuzena?
a) Jurisdikzio-ordena horren ardura izango dira administrazio publikoen ondare-erantzukizunarekin eta haien zerbitzura dauden langileenarekin lotutako uziak, baldin eta langile horiek funtzionario-izaerako zerbitzu-harremana badute eta ez lan-arlokoa.
b) Jurisdikzio-ordena horren ardura izango dira administrazio publikoen ondare-erantzukizunarekin lotutako uziak, baldin eta izaera juridiko-publikoko jarduera batetik badatoz.

c) Jurisdikzio-ordena horren ardura izango dira administrazio publikoen ondare-erantzukizunarekin lotutako uziak, baita interesdunak administrazioaren aseguratzailearen aurka zuzenean jarduten duenean ere, dagokion administrazioarekin batera.
d) Jurisdikzio-ordena horren ardura izango dira administrazio publikoen ondare-erantzukizunarekin lotutako uziak, salbu eta uzia kaltearekin zerikusia izan duten subjektu pribatuen aurka ere aurkeztu bada.

28 - Erabaki al daiteke, Auzialdiko Auzitegi bateko atal batean, bertan destinatuta dauden pertsonetako batek modu esklusiboan bere gain hartzea gai jakin batzuen gaineko ardura?
a) Ez; izan ere, atal batean, bertan destinatutako pertsona guztiak atala eskumenduna den mota guztietako gaiez arduratzen dira.
b) Bai, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak hala erabaki dezake, baina familia-, haur- eta gaitasun- edo exekuzio-arloetan bakarrik.
c) Bai, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak hala erabaki dezake, barrutian atal bereko plaza judizial bat baino gehiago dagoenean.
d) Bai, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak hala erabaki dezake, salbu eta horretarako eratzen diren zerbitzu erkideek laguntza-lanak egin baditzakete.

29.– Bake-epaileez ari garela, baieztapen hauetatik zein da zuzena?
a) Udaleko osoko bilkurak aukeratuko ditu, eta ordainsari bat jasoko dute.
b) Auzialdiko auzitegirik ez dagoen udalerrietan egongo dira, eta zuzenbideko lizentziadunak izan behar dute.
c) Beren funtzioa betetzea bateraezina da lanbide- edo merkataritza-jarduerak egitearekin, eta munta txikiko auzigai zibilez eta delitu arinaren ondoriozko prozesuez arduratuko dira.
d) Justizia Zerbitzu Publikoaren Efizientziaren arloko Neurriei buruzko Lege Organikoak figura hori ezabatzea xedatu zuen.

30 - Auzialdiko auzitegi batean, izenda al daitezke auzitegi horretako bi epaile edo magistratu, prozesu jakin batez arduratu daitezen hasieran gaia txandaren arabera egokitu zaionarekin batera?
a) Ez, auzialdiko auzitegietako atalak osatzen dituzten lanpostuak pertsona bakarrekoak baitira.
b) Bai, aurrez ezarritako urteko txanda publiko baten arabera, zigor-arloko prozesu jakin baten instrukzioaz arduratzeko edo, lehen auzialdian, edozein jurisdikzio-ordenatako prozedura batez arduratzeko, baldin eta, prozedura baten bolumena, konplexutasun berezia edo esku-hartzaileen kopurua kontuan hartuta, izendapen horrek jurisdikzio-funtzioa betetzea errazten badu.
c) Bai; kasu horretan, karrera judizialean antzinatasun handiena duen epaile edo magistratuak jardungo du txostengile.
d) Bai; kasu horretan, horrela izendatutako epaile edo magistratuei ezin izango zaizkie beste gai batzuk banatu, harik eta prozedura amaitu arte.

31 - Oro har, zer eremutan dute jurisdikzioa auzialdiko auzitegietako atalek?
a) Barruti judizialaren eremuan dute jurisdikzioa atal guztiek.
b) Probintziakoan: Arlo Penaleko Atalak, Administrazioarekiko Auzien Atalak, Arlo Sozialeko Atalak, Merkataritza Arloko Atalak, Espetxe Zaintzako Atalak eta Adingabeen Atalak; eta barruti judizialean: Arlo Zibileko Atalak, Instrukzio Atalak, Arlo Zibileko eta Instrukzioko Atalak, Familiaren, Haurren eta Gaitasunaren Atalak, Haur eta Nerabeen aurkako Indarkeriaren Atalak eta Emakumearen Aurkako Indarkeriaren Atalak.
c) Probintziakoan: Arlo Penaleko Atalak, Administrazioarekiko Auzien Atalak, Arlo Sozialeko Atalak, Merkataritza Arloko Atalak, Espetxe Zaintzako Atalak, Adingabeen Atalak, Haur eta Nerabeen aurkako Indarkeriaren Atalak eta Emakumearen Aurkako Indarkeriaren Atalak; eta barruti judizialean: Arlo Zibileko Atalak, Instrukzio Atalak, Arlo Zibileko eta Instrukzioko Atalak eta Familiaren, Haurren eta Gaitasunaren Atalak.
d) Probintziakoan: Arlo Penaleko Atalak, Administrazioarekiko Auzien Atalak, Arlo Sozialeko Atalak, Merkataritza Arloko Atalak; eta barruti judizialean: Arlo Zibileko Atalak, Instrukzio Atalak, Arlo Zibileko eta Instrukzioko Atalak, Familiaren, Haurren eta Gaitasunaren Atalak, Haur eta Nerabeen aurkako Indarkeriaren Atalak, Emakumearen Aurkako Indarkeriaren Atalak eta Espetxe Zaintzako Atalak eta Adingabeen Atalak.
32 - Espainiako auzitegiek eskumena izan al dezakete atzerritar batek nazio-lurraldetik kanpo egindako egitateez arduratzeko, egitate horiek, Espainiako legearen arabera, genozidio-delitu gisa tipifika badaitezke?
a) Bai, baita Espainia partaide den itun eta hitzarmenen arabera eratutako nazioarteko auzitegiren batek hasten duenean delitua ikertzeko eta epaitzeko prozedura ere.
b) Ez; izan ere, Espainiako auzitegiek kasu honetan soilik dute eskumena lurralde nazionaletik kanpo egindako delituez arduratzeko: ustezko erantzulea espainiarra bada, edo egitatea gauzatu ondoren Espainiako nazionalitatea eskuratu duen atzerritarra bada.

c) Bai, baita prozedura bideratzen bada ohiko bizilekua Espainian ez duen eta bertan ez dagoen atzerritar baten aurka ere.
d) Bai, nahiz eta egitateak gertatu diren tokiko estatuan ikertzeko eta epaitzeko prozedura bat hasita egon, baldin eta estatu horrek ezin badu ikerketa benetan egin eta Auzitegi Goreneko 2. salak hala baloratzen badu.

33.– Konstituzio Auzitegiaren aurreko babes-errekurtsoez ari garela, baieztapen hauetatik zein da zuzena?
a) Ezin da jarri autonomia-erkidegoetako legebiltzarrek emandako egintzen aurka.
b) Izapidetzeko onartuko da, soilik edukiak justifikatzen duenean Konstituzio Auzitegiak funtsari buruzko erabaki bat hartzea, garrantzi konstituzional berezia duelako.
c) Organo judizial baten egintzen edo omisioen aurka jartzen bada, bide judizialean kasu zehatzerako aurreikusitako aurkaratze-bide guztiak agortu beharko dira, jarduketen deuseztatze-eskaera izan ezik.
d) Konstituzioaren I. tituluko bigarren kapituluan aitortutako edozein eskubide urratzen denean jar daiteke.

34 - Julianak asmoa du demanda bat aurkeztea bere anaia Fernandoren aurka. Izan ere, biek batera etxe baten jabetza daukate amankomunean. Hala ere, horretarako, komunitatearen zenbait dokumentu eta kontu aztertu behar ditu, baina Fernandoren esku daude. Ba al du aurretiazko biderik dokumentu eta kontu horiek erakuts diezazkioten?
a) Ez, atariko eginbide hori ez baitago aurreikusita; nolanahi ere, eska dezake dagokion dokumentu bidezko froga aldez aurretik egiteko.
b) Ez, atariko eginbide hori ez baitago aurreikusita; nolanahi ere, dokumentuak eta kontuak gordailutzeko eskatu ahal izango du, kautelazko neurri gisa.
c) Ez, atariko eginbide hori ez baitago aurreikusita; nolanahi ere, demandan eska dezake eginbide hori epaiketa-ekitaldian egiteko.
d) Bai, atariko eginbide gisa eska dezake, demanda aurkeztu aurretik.

35 - Lorenzok demanda bat aurkeztu nahi du Luziaren aurka. Hala ere, ez dago ziur Luziaren gaitasunari, ordezkaritzari edo legitimazioari buruzko egitate jakin batzuez, horiek ezagutu behar baititu demanda aurkezteko. Horregatik, atariko eginbidea eskatzen da, Luciak egitate horiei buruz deklara dezan. Zer epailek izango du eskaera hori ebazteko eskumena?
a) Luziaren egoitzari dagokiona, deklinatoria onartu gabe.
b) Demanda zer epaileri aurkeztu behar zaion, epaile horrexek, deklinatoria onartu gabe.
c) Luziaren egoitzari dagokiona, deklinatoria onartuta.
d) Demanda zer epaileri aurkeztu behar zaion, epaile horrexek, deklinatoria onartuta.

36 - Prozesu zibilean, noiztik aurrera ez da onartuko arazo intzidentalik planteatzea?
a) Epaiketaren aurreko entzunaldia amaitu ondoren, prozedura arruntean; eta proposatutako froga onartu ondoren, hitzezko prozeduran.
b) Epaiketa hasi ondoren, prozedura arruntean; eta ikustaldia amaitu ondoren, hitzezkoan.
c) Epaiketa hasi ondoren, prozedura arruntean; eta proposatutako froga onartu ondoren, hitzezkoan.
d) Epaiketa amaitu ondoren, prozedura arruntean; eta ikustaldia amaitu ondoren, hitzezkoan.

37 - Prozesu zibil batean agerian jartzen bada ofizioz jazar daitekeen delitu-itxura duen egitate bat:
a) Auzitegiak berehala eta kasu orotan aginduko du jarduketak eteteko eta Ministerio Fiskalari jakinarazteko, akzio penalak egikaritu behar badira ere.
b) Auzitegiak jarduketak eteteko aginduko du, baldin eta aurkeztutako dokumenturen baten faltsutze-delitua egon badaiteke.
c) Auzitegiak jarduketak etetea erabakiko du, agerian jarritako egitatearen ondorioz auzi penala bideratzen ari dela egiaztatu bezain laster, prozesuaren izapidetze-egoera edozein dela ere, zigor-arloko auzitegiaren erabakiak prozesu zibilaren ebazpenean eragin erabakigarria izan dezakeenean.
d) Auzitegiak Ministerio Fiskala jakitun jarriko du, akzio penala egikaritu behar bada ere.
38 - Jabeen erkidego batek bukarazte-akzio bat abiarazi du jabeetako baten aurka, estatutuetan debekatutako jarduera bat higiezinean egiteagatik. Hala ere, kasuaz arduratzen den auzitegiak ohartarazi duenez, prozedura zibil bat dago ebazteke, zenbait jabek sustatuta, eta prozedura horretan, hain zuzen ere, estatutuen baliozkotasuna jartzen da auzitan. Zer ondorio dauka horrek?
a) Bukarazte-akzioa ebazten den prozesua automatikoki etengo da, harik eta, beste prozesuan, estatutuen baliozkotasunari buruz ebazten den arte.

b) Bukarazte-akzioaz arduratzen den auzitegiak jarduketen aribidea etetea dekretatu ahal izango du, autoak metatzea posible ez bada, bi alderdiek edo alderdietako batek hala eskatuta, kontrako alderdiari entzun ondoren.
c) Bukarazte-akzioaz arduratzen den auzitegiak horren berri eman ahal izango dio beste prozesuaz arduratzen den auzitegiari, bi alderdiek edo alderdietako batek eskatuta, kontrako alderdiari entzun ondoren, hain zuzen ere prozesu zaharrenaz arduratzen den auzitegiak arazo prejudiziala ebatz dezan.
d) Bukarazte-akzioaz arduratzen den auzitegiak estatutuen baliozkotasunari buruzko ebazpena eman ahal izango du, modu intzidentalean, eta beste prozesuak ez du inolako garrantzirik izango.

39. – Auzitegi batek uste badu alderdiren batek fede on prozesalaren erregelak urratu dituela, ezarri ahal izango diote isunen bat alderdi horri?
a) Bai, prozesuari amaiera ematen dion epaian, errekurtsoa jartzeko aukerarik gabe.
b) Bai, pieza banandu batean, eta errekurtsoa jartzeko aukera emanda.
c) Bai, auziaren muntaren gehieneko muga errespetatuta.
d) Ez, baina arrazoiak emanez ezetsiko ditu fede on prozesalaren erregelak urratuz formulatutako eskaerak eta intzidenteak.

40 - Marcelo delitu batengatik kondenatu zuten Espainian. Herrialde horretako errekurtso-bide guztiak agortu ondoren, Marcelok demanda bat aurkeztu zuen Giza Eskubideen Europako Auzitegian, eta auzitegi horrek, behin betiko epai baten bidez, deklaratu zuen Marceloren aurkako kondenak Giza Eskubideen Europako Hitzarmena urratu zuela. Zer ondorio dauka horrek?
a) Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaiak ez du nahitaezko indarrik, baina Espainian ondare-erantzukizuneko erreklamazio bat aurkezteko oinarria izan daiteke.
b) Espainiak men egin beharko dio epaiari, eta Ministroen Komitea epaia exekutatzeaz arduratuko da.
c) Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaiak berez dakar Marcelo kondenatu zuen epaia deuseztatzea.
d) Espainiak men egin beharko dio epaiari, baina ez dago mekanismo espezifikorik auzitegiaren epaien exekuzioa gainbegiratzeko.

41 - Abokatu-elkargoetako batzar nagusiez ari garela, baieztapen hauetatik zein da zuzena?
a) Legeak edo elkargoaren estatutuek kontrakorik aurreikusi ezean, dekanoari dagokio deialdia egitea.
b) Espainiako Abokatutzaren Estatutu Orokorrarekin bat etorriz, ezohiko batzar nagusirako deia egingo da elkargokideen laurdenak hala eskatzen duenean.
c) Diharduten elkargokideen botoek gainerako elkargokideenak halako bi balioko dute, betiere estatutu partikularrek parekatzen ez badituzte.
d) Espainiako Abokatutzaren Estatutu Orokorraren arabera, diziplina-ahala baliatzea dagokie.

42 - Susana abokatua da, bezero baten enkargua onartu du, eta haren kasuaren ardura hartu du bere gain, bere jardueragatik sortuko diren ordainsarien berri hari eman gabe, nahiz eta bezeroak hala eskatu dion. Arau-haustea al da hori?
a) Bai, eta berekin ekar lezake abokatu-jarduna gehienez urtebetez eteteko zehapena ezartzea.
b) Bai, eta abokatu-elkargotik kanporatzeko zehapena ezartzea ekar lezake.
c) Bai, baina idatzizko ohartarazpen-zehapena baino ezin izango da ezarri.
d) Ez, jokabide hori ez baitago arau-haustetzat tipifikatuta.

43 - ANULADA.

44 - Elisa abokatua da, eta zehapena jaso du, bere sozietate profesionaleko beste bezero batzuen interesekin gatazkan dauden interesak defendatzeagatik. Sozietate profesionala zehatu al daiteke horregatik?
a) Bai, baina Elisak zehapenik jasotzen ez badu bakarrik.
b) Ez, Espainiako Abokatutzaren Estatutu Orokorrak zehapenak abokatuei ezartzeko aukera baino ez baitu jasotzen.
c) Bai, arau-haustean partaide edo estaltzaile gisa erantzukizun konkurrentea duela egiaztatzen denean.
d) Bai, Elisaren jokabidea arau-hauste oso astuna baita.

45 - Antonio abokatua da, eta zehapena jaso du bere egoitza profesionalaren aldaketa ez komunikatzeagatik sartuta dagoen abokatu-elkargoari. Espainiako Abokatutzaren Estatutu Orokorraren arabera, baieztapen hauetatik zein da zuzena?

a) Zehapena ezartzeko erabakia berehala exekutatuko da, baina, beraren aurka, dagokion errekurtso korporatiboa, administrazio-errekurtsoa edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da.
b) Zehapena ezartzeko erabakiaren aurka, errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Espainiako Abokatutzaren Kontseilu Nagusiari.
c) Zehapena eman duen abokatu-elkargoaren eremuan bakarrik izango ditu ondorioak zehapenak.
d) Zehapenak ondorioak izango ditu Espainiako Abokatutzaren elkargo guztien eremuan, eta exekutatu beharrekoa izango da administrazio-bidean irmoa denean.

46 - Helenak ez du doako laguntza juridikorako eskubidea aitortua, eta 10.000 euroko kalte-galeren demanda jarri nahi du, Justo auzokidearen aurka. Ordaindu beharko al du Helenak jurisdikzio-ahala baliatzegatiko tasa?
a) Ez, kalte-galeren demandak jartzea tasatik salbuetsita baitago.
b) Ez, Helena pertsona fisikoa baita.
c) Bai, Helenak ez baitu aitortua doako laguntza juridikorako eskubidea.
d) Bai, prozesuaren munta 2.000 eurotik gorakoa baita.

47 - Ameliak aitortua du doako laguntza juridikorako eskubidea, Lourdesen aurka demanda bat jartzeko. Prozesua ebazpen baten bidez amaitzen da, eta, ebazpen horretan, kostuei buruzko erabakia hartzen da, Ameliaren alde. Ameliaren defentsan eta ordezkaritzan sortutako kostuen ordainketari dagokionez, baieztapen hauetatik zein da zuzena?
a) Lourdesek ordaindu beharko ditu Ameliaren defentsan eta ordezkaritzan sortu diren kostuak, eta zuzenean ordaindu beharko dizkie Ameliaren ordezkaritza eta zuzendaritza juridikorako izendatutako profesionalei.
b) Lourdesek ordaindu beharko ditu Ameliaren defentsan eta ordezkaritzan sortu diren kostuak, eta Ameliari ordaindu beharko dizkio; Ameliak bere ordezkaritza eta zuzendaritza juridikorako izendatu diren profesionalei eman beharko dizkie jasotako zenbateko horiek.
c) Lourdesek ordaindu beharko ditu Ameliaren defentsan eta ordezkaritzan sortu diren kostuak, eta Amelia ordezkatzeko eta defendatzeko pertsonak izendatu dituzten elkargo profesionalei ordaindu beharko dizkie
d) Ameliak ordaindu beharko ditu bere defentsan sortutako kostuak, betiere auzian lortutakoaren herena gainditzen ez badute.

48 - Abokatu-elkargoei ordaindu behar zaizkien elkargo-kuotez ari garela, baieztapen hauetatik zein da zuzena?
a) Ez dago aurreikusita elkargokideei ezohiko kuotak ezartzeko aukerarik.
b) Elkargoko kuotak ez ordaintzea arau-hauste oso astuna da.
c) Elkargokide-izaera galduko da, nahitaezko kuotaren sei hileroko ordaintzen ez badira, hura ordaintzea nahitaezkoa baldin bada.
d) Abokatu gisa elkargokide egiteko ordaindu behar den sarrera-kuotak ezin izango ditu gainditu inskripzioa izapidetzeari lotutako kostuak.

49 - Flora abokatua da, eta Markosen defentsa bere gain hartu du prozedura judizial batean. Marcos enpresaburua da, eta auditore batek, Markosen kontuetan egiten ari den auditoria baten esparruan, interesa agertu du Florak txosten bat egin dezan, hauek bilduko dituena: auzian izan daitekeen emaitzari buruzko balorazio profesionala eta emaitza horrek izan ditzakeen ondorio ekonomikoen zenbatespena. Egin al dezake Florak halako txosten bat?
a) Bai, baina Marcosek eskatu badu, bera izango baita txostenaren hartzaile bakarra, salbu eta espresuki baimena ematen badu hirugarren bati txostenaren berri emateko.
b) Bai, beti, auditoreak edo Marcosek eskatuta, eta Marcos jakitun egonda zein ez.
c) Florak auziaren emaitza Marcosen kalterako izango dela arrazoiz uste badu bakarrik.
d) Ez, inola ere ez, sekretu profesionala gordetzeko betebeharrak eragozten diolako.
50 - Zein da abokatu nagusien funtzioa Europar Batasuneko Justizia Auzitegian?
a) Europar Batasuneko erakundeak ordezkatzea eta defendatzea, Auzitegian bideratutako prozedura judizialetan.
b) Europar Batasuneko funtzionario publikoak ordezkatzea eta defendatzea, funtzionario horiei eragiten dieten prozedura judizialetan, betiere haiek aukeratutako abokatu bat eta prokuradore bat izendatzen ez badute.
c) Europar Batasuneko estatu kideak ordezkatzea eta defendatzea, Auzitegian bideratutako prozedura judizialetan, betiere beren abokatuen bidez ez agertzea erabakitzen badute.
d) Inpartzialtasun eta independentzia osoz, arrazoitutako konklusioak aurkeztea jendaurrean, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren Estatutuaren arabera abokatu nagusiaren esku-hartzea behar duten auzien gainean.

ERRESERBAKO GALDERAK

1 - Botere Judizialaren Lege Organikoaren arabera, noiz izango dute ordena sozialeko eskumena Espainiako epaile eta auzitegiek Gizarte Segurantzako uzien arloan?
a) Espainiako entitateen aurkako uziak direnean, edo Espainian egoitza, agentzia edo beste edozein ordezkaritza duten entitateen aurkako uziak direnean.
b) Uzia Espainiako lurraldean emandako zerbitzuengatik formulatzen denean bakarrik.
c) Bizilekua Espainian duten Gizarte Segurantzaren sistemako langileek edo onuradunek uzia formulatzen dutenean bakarrik.
d) Uzia Espainian kokatutako enpresaburu baten alde emandako zerbitzuengatik formulatzen denean bakarrik.

2 - Administrazioarekiko auzien jurisdikzio-ordenan, zer zenbateko ordaindu beharko du lehen auzialdian edo auzialdi bakarrean kostuak ordaintzera kondenatutako alderdiak?
a) Prozesuaren muntaren herena gainditzen ez duen zenbatekoa, kondena horren onuradun bakoitzeko.
b) Prozesuaren munta gainditzen ez duen zenbatekoa, kondena horren onuradun bakoitzeko.
c) Prozesuaren munta gainditzen ez duen zenbatekoa, kostuak ordaintzera kondenatutako alderdia Administrazioa bada, eta prozesuaren muntaren heren bat gainditzen ez duen zenbatekoa, kostuak ordaintzera kondenatutako alderdia alderdi demandatzailea bada.
d) Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legeak ez ditu berariaz arautzen prozesu-kostuak.

3 - Nor daude legitimatuta konstituzio-babeserako errekurtsoa jartzeko, baldin eta konstituzio-babesa izan dezakeen eskubidearen edo askatasunaren urraketaren jatorria organo judizial baten egintza edo omisio bat bada?
a) Kasuan kasuko prozesu judizialean alderdi izan direnak bakarrik.
b) Kasuan kasuko prozesu judizialean alderdi izan direnak eta Ministerio Fiskala bakarrik.
c) Kasuan kasuko prozesu judizialean alderdi izan direnak, Ministerio Fiskala eta Herriaren Defendatzailea.
d) Kasuan kasuko prozesu judizialean alderdi izan direnak, Ministerio Fiskala, Herriaren Defendatzailea eta oinarrizko eskubideak babesteko autonomia erkidegoetako estatutu-organoak.

4 - Jurisdikzio-gatazkez ari garela, baieztapen hauetatik zein da zuzena?
a) Kide anitzeko organo batek ebatziko ditu epaitegi edo auzitegien eta Administrazioaren arteko jurisdikzio-gatazkak. Kide hauek izango ditu organo horrek: Auzitegi Goreneko presidentea eta bost bokal; horietatik bi Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien Salako magistratuak, eta beste hirurak Estatu Kontseiluko kide iraunkorrak.
b) Epaitegi edo auzitegi baten eta Administrazioaren arteko jurisdikzio-gatazkak epaitegi edo auzitegiak ebatziko ditu.
c) Epaitegi edo auzitegi baten eta Administrazioaren arteko jurisdikzio-gatazkak Auzitegi Goreneko sala berezi batek ebatziko ditu.
d) Ezin da jurisdikzio-gatazkarik planteatu epaitegi edo auzitegi baten eta Administrazioaren artean; izan ere, Botere Judizialak gai jakin batez arduratzeko jurisdikziorik duen erabakitzea botere horri dagokio beti.

5 - Honako hauetatik, zein da abokatu batek egindako arau-hauste arina?
a) Justizia Administrazioan esku hartzen dutenenganako errespeturik eza.
b) Beste abokatu batzuen bisitak, komunikazio idatziak edo telefono bidezkoak behar den arretaz ez artatzea.
c) Zigor-kondena irmoa jasotzea, lanbidean jardutearen ondorioz dolozko delitu arinak egiteagatik.
d) Mozkortzea edo drogak kontsumitzea, lanbideko jardunean eragina dutenean.

6 - Diharduten hamar mila abokatu baino gehiago dituen abokatu-elkargo bateko gobernu-batzarrari zentsura-botoa aurkezteko, ezohiko batzar nagusira dei egiteko eskaera egiten da. Espainiako Abokatutzaren Estatutu Orokorraren arabera, gutxienez zenbatek sinatu beharko dute eskaera hori?
a) Jarduneko elkargokideen % 20k; kide horiek gutxienez hiru hilabeteko antzinatasuna izan beharko dute.
b) Jarduneko elkargokideen % 10ek; kide horiek gutxienez hiru hilabeteko antzinatasuna izan beharko dute.
c) Jarduneko elkargokideen % 50ek; kide horiek gutxienez hiru hilabeteko antzinatasuna izan beharko dute.
d) Ez dago jasota gobernu-batzarrari zentsura-botoa aurkezteko aukerarik.

B. GAI ESPEZIFIKOAK

ZUZENBIDE ZIBILEKO ETA MERKATARITZA-ZUZENBIDEKO ESPEZIALITATE JURIDIKOA

1 – Alodia Madrilen bizi da, eta aitaren jaraunspenaren senipartea erreklamatzeko demanda aurkeztu nahi du. Aita, Lorién izenekoa, Bernan hil zen (Suitza), han bizi baitzen; izan ere, lana zela eta, hara aldatu zen, bizitza osoa Caspen bizi ondoren. Zer auzialdiko auzitegitan jarri beharko du Alodiak demanda?
a) Bernako auzitegietan, Suitzan, Bernan bertan hil baitzen.
b) Caspeko Auzialdiko Auzitegian, hil aurretik Espainian izandako azken egoitza baita.
c) Madrilgo Auzialdiko Auzitegian, Alodiak Madrilen baitu egoitza.
d) Espainiako edozein auzialdiko auzitegitan, norbait atzerrian hiltzen denean jaraunspen-arazoei buruzko prozedura judizialen gaineko ardura Espainiako jurisdikzioari esleitzen dion ordezko araua aplikatuta.

2 – Fernandok akzio bat egikaritu nahi du, Isabeli, Elisari eta Anari patente baten zati baten titularkidetasuna eslei dakion eskatzeko. Zer epe izango luke Fernandok titulartasuna eskatzeko?
a) Emakidaren aipamena Jabetza Industrialaren Aldizkari Ofizialean argitaratu eta ondoko bi urteko epean soilik baliatu ahalko dira eskubide horiek.
b) Emakidaren aipamena Jabetza Industrialaren Aldizkari Ofizialean argitaratu eta ondoko hiru urteko epean soilik baliatu ahalko dira eskubide horiek.
c) Emakidaren aipamena Jabetza Industrialaren Aldizkari Ofizialean argitaratu eta ondoko bost urteko epean soilik baliatu ahalko dira eskubide horiek.
d) Emakidaren aipamena Jabetza Industrialaren Aldizkari Ofizialean argitaratu eta ondoko hamar urteko epean soilik baliatu ahalko dira eskubide horiek.

3 – Sufianek, 13 urteko marokoarra bera, espainiar nazionalitatea lortu nahi du, espainiar batek baitu haren gaineko guraso-ahala. Baliatu al dezake espainiar nazionalitatea aukeratzeko eskubidea bere kabuz?
a) Bai, baldin eta Erregistro Zibilaren bulegoko arduradunak uste badu espainiar nazionalitatea aukeratzeko eskubidea baliatu nahi duen adingabeak nahikoa ezaguera duela egindako aukerak berekin dakartzan eskubide eta betebeharrak ulertzeko eta konprenitzeko.
b) Ez, 12 urtetik beherako aukeratzailearen legezko ordezkariak bakarrik balia dezakeelako.
c) Ez, 14 urtetik beherako aukeratzailearen legezko ordezkariak bakarrik balia dezakeelako.
c) Ez, 16 urtetik beherako aukeratzailearen legezko ordezkariak bakarrik balia dezakeelako.

4 – Cartagenako Auzialdiko Auzitegian, Félix zordunaren ohiko etxebizitza exekutatzeko prozeduraz arduratzen ari dira. Zenbat galdatu dakioke exekuziopeko zordunari prozeduraren kostuetatik gehienez?
a) Ohiko etxebizitzaren exekuzioaren kasuan, exekuziopeko zordunari galdatu dakizkiokeen kostuek ezin izango dute gainditu demanda betearazlean erreklamatutako zenbatekoaren ehuneko 5.
b) Ohiko etxebizitzaren exekuzioaren kasuan, exekuziopeko zordunari galdatu dakizkiokeen kostuek ezin izango dute gainditu hipoteka-maileguan agertzen den zenbatekoaren ehuneko 5.
c) Ohiko etxebizitzaren exekuzioaren kasuan, exekuziopeko zordunari galdatu dakizkiokeen kostuek ezin izango dute gainditu hartzekodunak jaulkitako banku-ziurtapenean erreklamatutako zenbatekoaren ehuneko 5.
d) Ohiko etxebizitzaren exekuzioaren kasuan, exekuziopeko zordunari galdatu dakizkiokeen kostuek ezin izango dute gainditu aurretiazko adiskidetze-ekitaldian erreklamatutako zenbatekoaren ehuneko 5.

5 – Abeliñek, Andoniren abokatuak, azken eginbide gisa frogabide bat gauzatzea proposatu du prozesu arrunt zibil batean. Frogabidea gauzatu ondoren, zer epe izango du Abeliñek azken eginbidearen emaitza laburbiltzen eta baloratzen duen idazkia aurkezteko?
a) Behin azken eginbidea betez gero, bigarren egunera arte aurkeztu ahal izango du idazkia, egun hori barne.
b) Behin azken eginbidea betez gero, hirugarren egunera arte aurkeztu ahal izango du idazkia, egun hori barne.
c) Behin azken eginbidea betez gero, bosgarren egunera arte aurkeztu ahal izango du idazkia, egun hori barne.
d) Behin azken eginbidea betez gero, hamargarren egunera arte aurkeztu ahal izango du idazkia, egun hori barne.

6 – Juliak, Manzanaresko Erregistro Zibilaren Bulegoko arduradunak, zalantza sendoak ditu Bartolomék bere alaba Paularen jaiotza inskribatzeko aurkeztutako dokumentuak legezkoak ote diren. Zer egingo du Juliak halakoetan?
a) Inskribatu aurretik, behar diren egiaztapenak egingo ditu hamar egun igaro baino lehen.
b) Inskribatu aurretik, behar diren egiaztapenak egingo ditu hogeita hamar egun igaro baino lehen.

c) Inskribatu aurretik, behar diren egiaztapenak egingo ditu hilabete igaro baino lehen.
d) Inskribatu ondoren, behar diren egiaztapenak egingo ditu hiru hilabete igaro baino lehen.

7 – Nahiaren abokatuak, Garazik, eskatu du Nahiak Estebanen aurka Iruñeko Auzialdiko Auzitegian dituen prozesuak metatzeko. Zer epetan jakinaraziko zaie pertsonatutako gainerako alderdiei metaketa-eskaera?
a) Justizia Administrazioaren letraduak jakinaren gainean jarriko ditu pertsonatutako gainerako alderdiak eta metatu nahi diren prozesuetatik edozeinetan alderdi diren guztiak, eskaera egin den prozesu hartan alderdi izan ez arren, metaketari buruzko alegazioak formulatu ditzaten hamar eguneko epe komunean.
b) Justizia Administrazioaren letraduak jakinaren gainean jarriko ditu pertsonatutako gainerako alderdiak eta metatu nahi diren prozesuetatik edozeinetan alderdi diren guztiak, eskaera egin den prozesu hartan alderdi izan ez arren, metaketari buruzko alegazioak formulatu ditzaten hogei eguneko epe komunean.
c) Justizia Administrazioaren letraduak jakinaren gainean jarriko ditu pertsonatutako gainerako alderdiak eta metatu nahi diren prozesuetatik edozeinetan alderdi diren guztiak, eskaera egin den prozesu hartan alderdi izan ez arren, metaketari buruzko alegazioak formulatu ditzaten hogeita hamar eguneko epe komunean.
d) Justizia Administrazioaren letraduak jakinaren gainean jarriko ditu pertsonatutako gainerako alderdiak eta metatu nahi diren prozesuetatik edozeinetan alderdi diren guztiak, eskaera egin den prozesu hartan alderdi izan ez arren, metaketari buruzko alegazioak formulatu ditzaten hilabeteko epe komunean.

8 – Alaiak % 86ko desgaitasuna du, eta hitzezko prozedura batean parte hartzen du alderdi gisa, bere kabuz, ordezkaririk gabe. Prozedura horretan, 8.000 euro erreklamatzen dizkiote. Hauteman al liteke ofizioz Alaiak ez duela gaitasun prozesalik epaiketan agertzeko?
a) Ez, auzitegiak ezin du ofizioz hauteman alderdi izateko gaitasunik ez duela eta gaitasun prozesalik ez duela.
b) Bai, auzitegiak ofizioz prozesuaren edozein unetan hauteman dezake alderdi izateko gaitasunik ez duela eta gaitasun prozesalik ez duela.
c) Bai, auzitegiak ofizioz hauteman dezake alderdi izateko gaitasunik ez duela eta gaitasun prozesalik ez duela, baina demandari erantzun aurreko unean betiere.
d) Bai, auzitegiak ofizioz hauteman dezake alderdi izateko gaitasunik ez duela eta gaitasun prozesalik ez duela, baina froga gauzatu aurreko unean edo ikustaldiaren aurreko unean betiere.

9 – Patente bati buruzko prozedura batean, Maikak, Feliperen abokatuak, Nacho auzi-jartzailearen patentearen deuseztasun osoa edo partziala eskatu du, salbuespen bitartez. Zer epe du Nachok epaile edo auzitegiari salbuespena errekonbentzio gisa trata dadila eskatzeko?
a) Patentearen titularrak sei egun ditu, demandari emandako erantzuna jasotzen duenetik aurrera.
b) Patentearen titularrak zazpi egun ditu, demandari emandako erantzuna jasotzen duenetik aurrera.
c) Patentearen titularrak zortzi egun ditu, demandari emandako erantzuna jasotzen duenetik aurrera.
d) Patentearen titularrak bederatzi egun ditu, demandari emandako erantzuna jasotzen duenetik aurrera.

10 – Filomenak bere alaba Marta herentziarik gabe utzi nahi du, jaraunsgabetu, ez baitu zaindu iragan duen gaixoaldi larrian. Nola jaraunsgabe dezake Filomenak Marta?
a) Jaraunsgabetzea testamentuan bakarrik egin daiteke, eta oinarri duen legezko arrazoia adierazi behar da bertan.
b) Jaraunsgabetzea testamentuan eta notarioaren aurrean egiletsitako eskritura publikoan bakarrik egin daiteke, eta oinarri duen legezko arrazoia adierazi behar da bertan.
c) Jaraunsgabetzea agiri edo kontratu pribatu bidez, testamentuan eta notarioaren aurrean egiletsitako eskritura publikoan bakarrik egin daiteke, eta oinarri duen legezko arrazoia adierazi behar da bertan.
d) Jaraunsgabetzea edozein agiriren bidez egin daiteke, izan agiri publikoa, izan agiri pribatua, baldin eta jaraunsgabetzen den pertsona eta egilespenaren data egiaztatzen badira.

11 – Almudena kantari famatua da munduan, eta musika-ikuskizun eta -emanaldi bat esklusiboki lagatzeko kontratua egin nahi du. Horretarako, Gabrielen abokatu-bulegora jo du, kontratuaren iraupenari buruz aholku eman diezaion. Zenbateko iraupena izan dezake lagapen esklusiboak gehienez?
a) Lagapen esklusiboaren iraupena hiru urtekoa izango da gehienez ere.
b) Lagapen esklusiboaren iraupena bost urtekoa izango da gehienez ere.
c) Lagapen esklusiboaren iraupena hamar urtekoa izango da gehienez ere.
d) Lagapen esklusiboaren iraupena hamabost urtekoa izango da gehienez ere.

12 – Jimenak Sergirengana jo du, Sergi abokatua baita eta lanbide horretan diharduena, aholku eman diezaion Ministro Kontseiluaren erabaki bat hartzeko eta jakinarazteko gehieneko epeari buruz; erabakia lehiaren defentsaren arloan arautzen den kontzentrazioen kontrolari buruzko da. Zer erantzun beharko lioke Sergik?

a) Hogei egunekoa da kontzentrazioak kontrolatzeko prozeduraren barruan Ministroen Kontseiluak erabaki bat hartu eta jakinarazteko epea gehienez, Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko Ministerioko (oraingo Ekonomia, Merkataritza eta Enpresa Ministerioko) titularrak eragiketa hori Ministroen Kontseilura igortzen duen ebazpena ematen duenetik zenbatzen hasita.

b) Hilabetekoa da kontzentrazioak kontrolatzeko prozeduraren barruan Ministroen Kontseiluak erabaki bat hartu eta jakinarazteko epea gehienez, Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko Ministerioko (oraingo Ekonomia, Merkataritza eta Enpresa Ministerioko) titularrak eragiketa hori Ministroen Kontseilura igortzen duen ebazpena ematen duenetik zenbatzen hasita.

c) Hiru hilekoa da kontzentrazioak kontrolatzeko prozeduraren barruan Ministroen Kontseiluak erabaki bat hartu eta jakinarazteko epea gehienez, Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko Ministerioko (oraingo Ekonomia, Merkataritza eta Enpresa Ministerioko) titularrak eragiketa hori Ministroen Kontseilura igortzen duen ebazpena ematen duenetik zenbatzen hasita.

d) Sei hilekoa da kontzentrazioak kontrolatzeko prozeduraren barruan Ministroen Kontseiluak erabaki bat hartu eta jakinarazteko epea gehienez, Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko Ministerioko (oraingo Ekonomia, Merkataritza eta Enpresa Ministerioko) titularrak eragiketa hori Ministroen Kontseilura igortzen duen ebazpena ematen duenetik zenbatzen hasita.

13 – Román magistratua da, Las Palmas Kanaria Handikoa hiriko Auzialdiko Auzitegiko Atal Zibileko 1 zenbakiko plazakoa, eta, Josefak Avelinoren aurka hasitako kanbio-prozesu batean, aurkakotzari buruzko ebazpena eman du. Zer ondore izango ditu aurkakotzari buruzko ebazpenak?

a) Kanbio-epaiketan emandako behin betiko epaiak ez du sortuko gauza epaituaren ondorerik epaiketa horretan alegatutako eta eztabaidatutako arazoei dagokienez.

b) Kanbio-epaiketan emandako behin betiko epaiak ez du sortuko gauza epaituaren ondorerik alegatutako eta eztabaidatutako arazoei dagokienez, eta arazook kasuan kasuko epaiketa adierazlean planteatu ahal izango dira.

c) Kanbio-epaiketan emandako epai irmoak ez du sortuko gauza epaituaren ondorerik alegatutako eta eztabaidatutako arazoei dagokienez, eta arazook kasuan kasuko epaiketa betearazlean planteatu ahal izango dira.

d) Kanbio-epaiketan emandako epai irmoak gauza epaituaren ondoreak sortuko ditu epaiketa horretan alegatutako eta eztabaidatutako arazoei dagokienez, eta gainerako arazoak kasuan kasuko epaiketan planteatu ahal izango dira.

14 – Haizeak, Maddiren abokatuak, idazki bat aurkeztu du Bilboko Auzialdiko Auzitegian, Atal Zibileko 5 zenbakiko plazako magistratuak emandako epaia argitzeko eskatzeko. Magistratuak, ebazpen bidez, ezezkoa eman dio epaia argitzeko eskaerari; hori ikusita, zer errekurtso jar dezake Haizeak?

a) Argitzeari edo zuzentzeari buruz erabakitzen duen ebazpenaren aurka, alderdi interesdunak berraztertze-errekurtsoa jar dezake, argitzeko eskatu den ebazpena jakinarazi denetik bost egun igaro baino lehen.

b) Argitzeari edo zuzentzeari buruz erabakitzen duen ebazpenaren aurka, alderdi interesdunak zuzeneko berrikuspen-errekurtsoa jar dezake, argitzeko eskatu den ebazpena jakinarazi denetik bost igaro baino lehen.

c) Argitzeari edo zuzentzeari buruz erabakitzen duen ebazpenaren aurka, alderdi interesdunak apelazio-errekurtsoa jar dezake, argitzeko eskatu den ebazpena jakinarazi denetik hogei egun igaro baino lehen.

d) Ezin izango da errekurtsorik jarri argitzeari edo zuzentzeari buruz erabakitzen duen ebazpenaren aurka, baina hori ez da eragozpena izango bidezkoak diren errekurtsoak jartzeko, hala badagokio, eskaerak aipatzen duen ebazpenaren aurka.

15 – Eulàliak, Adriàren abokatuak, prozedura judizial zibil bat abiatu du adingabeak ostutako eta atzerrira eramandako kasuetan haiek itzultzeko eskatzeko. Izan ere, Adriáren bikotekide ohia, Larissa, seme-alabekin batera Portugalera aldatu da, Figueresko Auzialdiko Auzitegiko 5 zenbakiko plazako magistratuak emandako epaia urratuta. Prozedura judizial horretan, zer epetan ebatziko da demanda izapidetzeko onarpenari buruz?

a) Justizia Administrazioaren letraduak 24 ordu igaro baino lehen ebatziko du demandaren onarpenari buruz, eta, irizten badio demanda ez dela onargarria, epaileari jakinaraziko dio, bidezkoa dena ebatz dezan epe horretan.

b) Justizia Administrazioaren letraduak 36 ordu igaro baino lehen ebatziko du demandaren onarpenari buruz, eta, irizten badio demanda ez dela onargarria, epaileari jakinaraziko dio, bidezkoa dena ebatz dezan gehienez hiru egun baino lehen.

c) Justizia Administrazioaren letraduak 48 ordu igaro baino lehen ebatziko du demandaren onarpenari buruz, eta, irizten badio demanda ez dela onargarria, epaileari jakinaraziko dio, bidezkoa dena ebatz dezan gehienez bost egun baino lehen.

d) Justizia Administrazioaren letraduak 72 ordu igaro baino lehen ebatziko du demandaren onarpenari buruz, eta, irizten badio demanda ez dela onargarria, epaileari jakinaraziko dio, bidezkoa dena ebatz dezan gehienez hamar egun baino lehen.

16 – Procopia auzitegietako prokuradorea da; haren aitak miokardio-infartua izan du lanean ziharduela, eta Zafrako Ospitalera eraman dute presaka, eta han dute. Eten al daitezke Procopiak parte hartzen duen prozeduren epeak haren ezinbesteak bultzaturik?

a) Bai, epeak eten eta epemugak bi egun baliodun atzeratu ahal izango dira abokatuen edo prokuradoreen elkargoek edo pertsonatutako alderdiek abokatuari edo prokuradoreari eragiten dioten ezinbesteko kausa objektiboak komunikatzen dituztenean. Adibidez, jaiotzak eta adingabeen zaintza; gaixotasun larriak eta istripuak, ospitaleratu beharra dakartenak; bigarren graduraino odolkideen edo ezkontza-ahaideen heriotzak, eta gizarte-segurantzak edo osasun-sistema edo aurreikuspen sozialeko sistema baliokideak ziurtatutako laneko bajak.

b) Bai, epeak eten eta epemugak hiru egun baliodun atzeratu ahal izango dira abokatuen edo prokuradoreen elkargoek edo pertsonatutako alderdiek abokatuari edo prokuradoreari eragiten dioten ezinbesteko kausa objektiboak komunikatzen dituztenean. Adibidez, jaiotzak eta adingabeen zaintza; gaixotasun larriak eta istripuak, ospitaleratu beharra dakartenak; bigarren graduraino odolkideen edo ezkontza-ahaideen heriotzak, eta gizarte-segurantzak edo osasun-sistema edo aurreikuspen sozialeko sistema baliokideak ziurtatutako laneko bajak.

c) Bai, epeak eten eta epemugak bost egun baliodun atzeratu ahal izango dira abokatuen edo prokuradoreen elkargoek edo pertsonatutako alderdiek abokatuari edo prokuradoreari eragiten dioten ezinbesteko kausa objektiboak komunikatzen dituztenean. Adibidez, jaiotzak eta adingabeen zaintza; gaixotasun larriak eta istripuak, ospitaleratu beharra dakartenak; bigarren graduraino odolkideen edo ezkontza-ahaideen heriotzak, eta gizarte-segurantzak edo osasun-sistema edo aurreikuspen sozialeko sistema baliokideak ziurtatutako laneko bajak.

d) Bai, epeak eten eta epemugak hamar egun baliodun atzeratu ahal izango dira abokatuen edo prokuradoreen elkargoek edo pertsonatutako alderdiek abokatuari edo prokuradoreari eragiten dioten ezinbesteko kausa objektiboak komunikatzen dituztenean. Adibidez, jaiotzak eta adingabeen zaintza; gaixotasun larriak eta istripuak, ospitaleratu beharra dakartenak; bigarren graduraino odolkideen edo ezkontza-ahaideen heriotzak, eta gizarte-segurantzak edo osasun-sistema edo aurreikuspen sozialeko sistema baliokideak ziurtatutako laneko bajak.

17 – Exekuzio-prozedura zibil batean, Sarak, Hans-en jarduneko abokatuak, kautelazko neurri bat eskatu nahi du Frankyk Eslovenian duen kontu korronteko saldoak atxiki daitezen, Esteponako Auzialdiko Auzitegian exekuzio-prozedura bat dagoelako eta arriskua dagoelako zordunak kontutik diru guztia ateratzeko eta, hala, ordainketarik ez egiteko. Lankidetza zibileko zer tresna erabiliko du Sarak Esloveniako kontu korronteko saldoak atxikitzeko?

a) 2014/41/EE Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2014ko apirilaren 3koa, Europako Ikerketa Aginduari buruzkoa.

b) (EB) 655/2014 Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2014ko maiatzaren 15ekoa, Kontuak Atxikitzeko Europako Aginduari buruzko Prozedura ezartzen duena.

c) (EE) 1896/2006 Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2006ko abenduaren 12koa, zeinaren bidez Europako prozesu monitorioa ezartzen baita.

d) (EE) 861/2007 Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2007ko uztailaren 11koa, zeinaren bidez Europako munta txikiko prozesua ezartzen baita.

18 – Celestino Gabrielarekin ezkondu da. Izan ere, Ciprianok, Gabrielaren aitak, alabarekin ezkondu ezean hiltzeko mehatxua egina zion, alaba haurdun geratu baitzen eta Celestinoren seme bat izatekoa baitzen. Erabili al lezake Celestinok ezkontzaren deuseztasun-akzioa?

a) Ez, ezkontideetako batek inoiz ezin izango du erabili ezkontzaren deuseztasun-akzioa.

b) Bai, baina akzioa iraungi eta ezkontza baliozkotuko da, baldin eta ezkontideak elkarrekin sei hilabete bizi izan badira okerra desegin eta gero edo derrigortzea nahiz beldurraren arrazoia desagertu eta gero.

c) Bai, baina akzioa iraungi eta ezkontza baliozkotuko da, baldin eta ezkontideak elkarrekin urtebete bizi izan badira okerra desegin eta gero edo derrigortzea nahiz beldurraren arrazoia desagertu eta gero.

d) Bai, baina akzioa iraungi eta ezkontza baliozkotuko da, baldin eta ezkontideak elkarrekin bi urte bizi izan badira okerra desegin eta gero edo derrigortzea nahiz beldurraren arrazoia desagertu eta gero.

19 – Pau, Nacho, Adela, Javier eta Leopoldo bazkide kolektiboak dira sozietate komanditario batean, eta Javier eta Leopoldo, gainera, sozietate horren kudeatzaileak dira. Kasu horretan, nola egongo dira behartuak bazkideak?

a) Javier eta Leopoldo bakarrik egongo dira beharturik modu pertsonalean eta mankomunatuan sozietate komanditarioaren eragiketen ondoreei dagokienez, haren kudeatzaileak izateagatik.

b) Pau, Nacho eta Adela bakarrik egongo dira beharturik modu pertsonalean eta mankomunatuan sozietatearen eragiketen ondoreei dagokienez, eta Javier eta Leopoldo edozein betebehar pertsonaletik salbuetsita geratuko dira,

sozietate komanditarioaren kudeatzaileak izateagatik.
c) Pau, Nacho eta Adela bakarrik egongo dira beharturik modu pertsonalean eta solidarioan sozietatearen eragiketen ondoreei dagokienez, eta Javier eta Leopoldo edozein betebehar pertsonaletik salbuetsita geratuko dira, sozietate komanditarioaren kudeatzaileak izateagatik.
d) Pau, Nacho, Adela, Javier eta Leopoldo, bazkide kolektiboak direnez, modu pertsonalean eta solidarioan beharturik egongo dira komanditako konpainiaren eragiketen ondoreei dagokienez, alde batera utzita komanditako konpainiaren kudeatzaileak diren edo ez.

20 – Loretoren bulegora joan da Miguel Ángel, aholku eman diezaion konkurtso-deklarazioa eskatzeko aukerari buruz, kaudimenik gabe baitago. Miguel Ángelek ez daki eskaera egiteko abokaturen baten eta prokuradoreren baten esku-hartzea behar den. Zer erantzungo lioke Loretok postulazio prozesalaren beharrari buruz?
a) Zordunak aurkeztu behar du beraren konkurtsoa deklaratzeko eskaera, eta ez da behar inongo abokaturen edo prokuradoreren sinadurarik.
b) Abokatu batek aurkeztu behar du zordunaren konkurtsoa deklaratzeko zordunak berak egindako eskaera, eredu ofizialean, abokatuak sinatuta, eta, horretarako, ez da beharrezkoa prokuradoreek esku hartzea.
c) Prokuradore batek aurkeztu behar du zordunaren konkurtsoa deklaratzeko zordunak berak egindako eskaera, eredu ofizialean, prokuradoreak berak eta abokatu batek sinatuta.
d) Prokuradore batek aurkeztu behar du zordunaren konkurtsoa deklaratzeko zordunak berak egindako eskaera, eredu ofizialean, prokuradoreak berak sinatuta, eta, horretarako, ez da beharrezkoa abokatuek esku hartzea.

21 – Palmako Auzialdiko Auzitegiko Atal Zibileko 6 zenbakiko plazaren titularrak exekuzio bati zio prozesalengatik aurka egiteari buruz ebatzi du, eta Virginiak, Maiteren abokatuak, exekuzioaren aurkakotza hori aurkaratu nahi du. Zer epe du alderdi exekutatzaileak funtsari buruzko zioetan oinarritutako aurkakotza aurkaratzeko?
a) Exekuzioari zio prozesalengatik aurka egiteari buruz ebatzi denean edo zio horiek alegatu ez direnean, alderdi exekutatzaileak bost eguneko epean aurkaratu ahal izango du funtsari buruzko zioetan oinarritutako aurkakotza, zio horiei buruzko ebazpena jakinarazten zaionetik edo aurkakotza-idazkia helarazten zaionetik kontatzen hasita.
b) Exekuzioari zio prozesalengatik aurka egiteari buruz ebatzi denean edo zio horiek alegatu ez direnean, alderdi exekutatzaileak hamar eguneko epean aurkaratu ahal izango du funtsari buruzko zioetan oinarritutako aurkakotza, zio horiei buruzko ebazpena jakinarazten zaionetik edo aurkakotza-idazkia helarazten zaionetik kontatzen hasita.
c) Exekuzioari zio prozesalengatik aurka egiteari buruz ebatzi denean edo zio horiek alegatu ez direnean, alderdi exekutatzaileak hogei eguneko epean aurkaratu ahal izango du funtsari buruzko zioetan oinarritutako aurkakotza, zio horiei buruzko ebazpena jakinarazten zaionetik edo aurkakotza-idazkia helarazten zaionetik kontatzen hasita.
d) Exekuzioari zio prozesalengatik aurka egiteari buruz ebatzi denean edo zio horiek alegatu ez direnean, alderdi exekutatzaileak hilabeteko epean aurkaratu ahal izango du funtsari buruzko zioetan oinarritutako aurkakotza, zio horiei buruzko ebazpena jakinarazten zaionetik edo aurkakotza-idazkia helarazten zaionetik kontatzen hasita.

22 – Idoia 100.000 euroko kreditu baten hartzekoduna da, eta Serezade da haren zorduna; kreditua hipoteka bidez bermatuta dago. Zer preskripzio-epe izango luke hipoteka-akzioak?
a) Hipoteka-akzioak egikaritu daitekeenetik hogei urtera preskribatzen du.
b) Hipoteka-akzioak egikaritu daitekeenetik hogeita hamar urtera preskribatzen du.
a) Hipoteka-akzioak egikaritu daitekeenetik berrogei urtera preskribatzen du.
d) Hipoteka-akzioak inoiz ez du preskribatuko.

23 – Jesusek agerikoa ez den zortasun etengabeko bat eskuratu nahi du. Nola eskuratu dezake zortasuna?
a) Titulu bidez bakarrik eskuratu ahal izango da.
b) Hogei urteko preskripzioaren bidez bakarrik eskuratu ahal izango da.
c) Titulu bidez edo hogei urteko preskripzioaren bidez eskuratu ahal izango da.
d) Ezin izango da eskuratu ez tituluz eta ez hogei urteko preskripzioaren bidez.

Foru-zuzenbide zibilei buruzko galderak
24 – Epaileak Rufo semearen guraso-ahala kendu die Ángelari eta Benitori. Semeak 11 urte ditu, eta, gurasoek bezala, Aragoiko auzotasun zibila du. Ángelari eta Benitori guraso-ahala kentzeak izango al du eraginik Rufo semearen auzotasun zibilean?
a) Ez, gurasoei guraso-ahalaren egikaritza kentzeak edo eteteak ez du eraginik seme-alaben auzotasun zibilean.
b) Bai, gurasoei guraso-ahalaren egikaritza kentzeak edo eteteak 12 urtetik beherako seme-alaben auzotasun zibilari bakarrik eragingo dio.
c) Bai, gurasoei guraso-ahalaren egikaritza kentzeak edo eteteak 14 urtetik beherako seme-alaben auzotasun zibilari

bakarrik eragingo dio.
d) Bai, gurasoei guraso-ahalaren egikaritza kentzeak edo eteteak 16 urtetik beherako seme-alaben auzotasun zibilari bakarrik eragingo dio.

25 – Aukeratu galdera, hautatu duzun foru-zuzenbidearen arabera:

A – Zuzenbide zibil erkidea:
25 - Angelinesek auzotasun zibil erkidea zuen hil zenean. Haren alaba Silviak akzio judizial bat egikaritu nahi du bere anaia Álvaroren aurka, uste baitu amak modu bidegabean jaraunsgabetu zuela. Zer epe du Silviak akzioa egikaritzeko?
a) Akzioa urtebetera iraungiko da.
b) Akzioa bi urtera iraungiko da.
c) Akzioa hiru urtera iraungiko da.
d) Akzioa lau urtera iraungiko da.

B - Aragoiko zuzenbide zibila:
25 – Jarak Aragoiko auzotasun zibila zuen hil zenean. Haren alaba Izarbek ezduintasuna deklaratzeko akzioa egikaritu nahi du bere anaia Franchoren aurka, zeina amari egitezko tratu txarrak emateagatik kondenatu baitzuten, epai irmo baten bidez. Zer epe du Izarbek ezduintasuneko akzioa egikaritzeko?
a) Ezduintasuna deklaratzeko akzioa urtebetera iraungiko da, oinordeko izateko duintasunik ez duenak jarauntsia edo legatua daukanetik kontatzen hasita.
b) Ezduintasuna deklaratzeko akzioa bi urtera iraungiko da, oinordeko izateko duintasunik ez duenak jarauntsia edo legatua daukanetik kontatzen hasita.
c) Ezduintasuna deklaratzeko akzioa lau urtera iraungiko da, oinordeko izateko duintasunik ez duenak jarauntsia edo legatua daukanetik kontatzen hasita.
d) Ezduintasuna deklaratzeko akzioa bost urtera iraungiko da, oinordeko izateko duintasunik ez duenak jarauntsia edo legatua daukanetik kontatzen hasita.

C - Balearretako zuzenbide zibila:
25 – Laiak Balear Uharteetako auzotasun zibila zuen hil zenean. Haren alaba Margalidak ezduintasuna deklaratzeko akzioa egikaritu nahi du bere anaia Martíren aurka, zeina amari egitezko tratu txarrak emateagatik kondenatu baitzuten, epai irmo baten bidez. Zer epe du Margalidak ezduintasuneko akzioa egikaritzeko?
a) Oinordeko izateko duintasunik ez izatearen deklaratze-akzioa urtebetera iraungitzen da, akzio hori egikaritzeko legitimazioa duenak duintasunik ezaren berri duenetik edo haren berri izateko aukera duenetik kontatzen hasita; nolanahi ere, oinordeko izateko duintasunik ez duenak jaraunspeneko ondasunak dauzkanetik urtebete igarotakoan iraungitzen da.
b) Oinordeko izateko duintasunik ez izatearen deklaratze-akzioa bi urtera iraungitzen da, akzio hori egikaritzeko legitimazioa duenak duintasunik ezaren berri duenetik edo haren berri izateko aukera duenetik kontatzen hasita; nolanahi ere, oinordeko izateko duintasunik ez duenak jaraunspeneko ondasunak dauzkanetik bi urte igarotakoan iraungitzen da.
c) Oinordeko izateko duintasunik ez izatearen deklaratze-akzioa lau urtera iraungitzen da, akzio hori egikaritzeko legitimazioa duenak duintasunik ezaren berri duenetik edo haren berri izateko aukera duenetik kontatzen hasita; nolanahi ere, oinordeko izateko duintasunik ez duenak jaraunspeneko ondasunak dauzkanetik lau urte igarotakoan iraungitzen da.
d) Oinordeko izateko duintasunik ez izatearen deklaratze-akzioa bost urtera iraungitzen da, akzio hori egikaritzeko legitimazioa duenak duintasunik ezaren berri duenetik edo haren berri izateko aukera duenetik kontatzen hasita; nolanahi ere, oinordeko izateko duintasunik ez duenak jaraunspeneko ondasunak dauzkanetik bost urte igarotakoan iraungitzen da.

D - Kataluniako zuzenbide zibila:
25 – Meritxelek Kataluniako auzotasun zibila zuen hil zenean. Haren alaba Llurak ezduintasuna deklaratzeko akzioa egikaritu nahi du bere anaia Guillemen aurka, zeina amari egitezko tratu txarrak emateagatik kondenatu baitzuten, epai irmo baten bidez. Zer epe du Llurak ezduintasuneko akzioa egikaritzeko?
a) Oinordeko izateko duintasunik edo gaitasunik ez izatearen deklaratze-akzioa urtebetera iraungitzen da, akzio hori egikaritzeko legitimazioa duenak efikaziarik ezaren arrazoia jakiten duenetik edo normalean jakiteko aukera izango lukeenetik kontatzen hasita; nolanahi ere, duin edo gai ez denak ondasunak jaraunsle edo legatu-hartzaile gisa dauzkanetik urtebete igarotakoan iraungitzen da.

b) Oinordeko izateko duintasunik edo gaitasunik ez izatearen deklaratze-akzioa bi urtera iraungitzen da, akzio hori egikaritzeko legitimazioa duenak efikaziarik ezaren arrazoia jakiten duenetik edo normalean jakiteko aukera izango lukeenetik kontatzen hasita; nolanahi ere, duin edo gai ez denak ondasunak jaraunsle edo legatu-hartzaile gisa dauzkanetik bi urte igarotakoan iraungitzen da.
c) Oinordeko izateko duintasunik edo gaitasunik ez izatearen deklaratze-akzioa hiru urtera iraungitzen da, akzio hori egikaritzeko legitimazioa duenak efikaziarik ezaren arrazoia jakiten duenetik edo normalean jakiteko aukera izango lukeenetik kontatzen hasita; nolanahi ere, duin edo gai ez denak ondasunak jaraunsle edo legatu-hartzaile gisa dauzkanetik hiru urte igarotakoan iraungitzen da.
d) Oinordeko izateko duintasunik edo gaitasunik ez izatearen deklaratze-akzioa lau urtera iraungitzen da, akzio hori egikaritzeko legitimazioa duenak efikaziarik ezaren arrazoia jakiten duenetik edo normalean jakiteko aukera izango lukeenetik kontatzen hasita; nolanahi ere, duin edo gai ez denak ondasunak jaraunsle edo legatu-hartzaile gisa dauzkanetik lau urte igarotakoan iraungitzen da.

E - Galiziako zuzenbide zibila:
25 - Anduriñak Galiziako auzotasun zibila zuen hil zenean. Haren alaba Aldarak akzio bat egikaritu nahi du bere anaia Xoxe Xuanen aurka, preterizio edo jaraunsgabetze bidegabeagatik, uste baitu amak arrazoirik gabe jaraunsgabetu duela. Zer epe du Aldarak akzioa egikaritzeko?
a) Preterizio edo jaraunsgabetze bidegabearen ondoriozko akzioak kausatzailea hil eta urtebetera azkentzen dira iraungita.
b) Preterizio edo jaraunsgabetze bidegabearen ondoriozko akzioak kausatzailea hil eta bi urtera azkentzen dira iraungita.
c) Preterizio edo jaraunsgabetze bidegabearen ondoriozko akzioak kausatzailea hil eta lau urtera azkentzen dira iraungita.
d) Preterizio edo jaraunsgabetze bidegabearen ondoriozko akzioak kausatzailea hil eta bost urtera azkentzen dira iraungita.

F – Euskal Autonomia Erkidegoko zuzenbide zibila (Bizkaia):
25 - Anek Euskal Autonomia Erkidegoko auzotasun zibila zuen hil zenean. Haren alaba Edurnek akzio judizial bat egikaritu nahi du bere anaia Oihanen aurka, uste baitu amak modu bidegabean jaraunsgabetu zuela. Zer epe du Edurnek akzioa egikaritzeko?
a) Akzioa urtebetera iraungiko da.
b) Akzioa bi urtera iraungiko da.
c) Akzioa hiru urtera iraungiko da.
d) Akzioa lau urtera iraungiko da.

G – Nafarroako zuzenbide zibila:
25 - Lucíak Nafarroako auzotasun zibila zuen hil zenean. Haren alaba Leyrek amaren testamentu olografoa protokoloan jaso nahi du. Zer epe du Leyrek hori egiteko?
a) Testamentua iraungi egingo da testamentugilea hil eta urtebete igaro baino lehen protokoloan jaso ezean.
b) Testamentua iraungi egingo da testamentugilea hil eta bi urte igaro baino lehen protokoloan jaso ezean.
c) Testamentua iraungi egingo da testamentugilea hil eta lau urte igaro baino lehen protokoloan jaso ezean.
d) Testamentua iraungi egingo da testamentugilea hil eta bost urte igaro baino lehen protokoloan jaso ezean.

ERRESERBAKO GALDERAK

1 – Felisak, Pacok, Martak eta Luisek ondasun-erkidego bat eratu dute, azken bost urtean eskuratu dituzten zenbait higiezinekin. Laurak Yolandaren bulegora joan dira, abokatua baita eta lanbide horretan diharduena: jakin nahi dute itunik egin al dezaketen erkidegoaren ondasunak denbora jakin batez modu indibisoan kontserbatzeko. Egin al daiteke?
a) Bai, balio du epe jakin batean ondasunak indibisoan kontserbatzeko itunak; epe hori ezin da izan hamar urtetik gorakoa.
b) Bai, balio du epe jakin batean ondasunak indibisoan kontserbatzeko itunak; epe hori ezin da izan hogei urtetik gorakoa.
c) Bai, balio du epe jakin batean ondasunak indibisoan kontserbatzeko itunak; epe hori ezin da izan hogeita hamar urtetik gorakoa.
d) Ez, erabat deuseza izango da epe jakin batean ondasunak indibisoan kontserbatzeko ituna.

2.- Alejandra auzitegietako prokuradorea da, José Antonio ordezkatzen du prozedura arrunt zibil batean, eta prozesuko gainerako alderdiei kopiak helaraztea pentsatu du. Nork helaraziko dizkie kopia horiek gainerako alderdiei?
a) Alderdiak abokatuek defendatuta eta prokuradoreek ordezkatuta daudenean, ez zaie kopiarik helarazi beharko prozeduran pertsonatutako gainerako alderdiei.
b) Alderdiak prokuradoreek ordezkatuta daudenean, prokuradore horietako bakoitzak helarazi beharko dizkie gainerako alderdien prokuradoreei auzitegiari aurkezten dizkion idazkien eta dokumentuen kopiak.
c) Alderdiak abokatuek ordezkatuta daudenean, abokatu horietako bakoitzak helarazi beharko dizkie gainerako alderdien abokatuei auzitegiari aurkezten dizkion idazkien eta dokumentuen kopiak.
d) Alderdiak abokatuek defendatuta eta prokuradoreek ordezkatuta daudenean, alderdi bakoitzak helarazi beharko dizkie auzitegiari aurkezten dizkion idazkien eta dokumentuen kopiak prozesuan alderdi diren pertsona fisiko edo juridikoei, bere postulazio prozesalaren bidez helarazi beharrik gabe.

ARLO PENALEKO ESPEZIALITATE JURIDIKOA

1 – 14 urtetik beherako adingabe baten irudia erabiliz haur-pornografia birtuala egitearen delitua zer delitu mota da?
a) Astuntasun txikiagoko delitua da.
b) Delitu arina da.
c) Haur-pornografia birtuala ez dago zigortuta gure ordenamendu juridikoan.
d) Delitu astuna da.

2 – Juanek Mariaren sare sozialetatik lortutako argazki batzuk erabili ditu, haren baimenik gabe, TikTok sare sozialean profil faltsu bat sortzeko, hura umiliatzeko, eta jazarpen-egoera bat eragin dio. Zer zigor mota dute egitate horiek?
a) Zigor arina.
b) Astuntasun txikiagoko zigorra.
c) Egitate horiek atipikoak dira.
d) Zigor astuna.

3 – Bi inguruabar astungarri daudenean eta inguruabar aringarririk ez dagoenean, zer zigor ezarri behar da?
a) Legeak delituari ezarritako zigorra baino gradu bat gehiagokoa ezar daiteke, baina ez da nahitaezkoa.
b) Nahitaezkoa da legeak delituari ezarritako zigorra baino gradu bat gehiagokoa ezartzea.
c) Nahitaezkoa da legeak delituari ezarri dion zigorra goiko erdian ezartzea.
d) Legeak delituari ezarri dion zigorra goiko erdian ezar daiteke, baina ez da nahitaezkoa.

4 – Sofia funtzionario-eroskeriaren delitu batengatik kondenatu dute, eta zigor hauek ezarri dizkiote: 4 urteko espetxe-zigorra, 15 hilabeteko isuna eta 10 urteko desgaikuntza berezia enplegu edo kargu publikorako. Desgaikuntza bereziko zigor hori zigor erantsia al da?
a) Bai, desgaikuntza-zigorrak beti baitira erantsiak.
b) Ez, inola ere ez, zigor nagusia delako.
c) Bai, espetxe-zigor batekin batera ezarri diotelako.
d) Ez, espetxe-zigorra baino luzeagoa delako; bestela, zigor erantsia izango litzateke.

5 - Ezar al dakioke pertsona juridiko bati isun-zigorra?
a) Bai, eta eguneko kuota, gutxienez, bi eurokoa izango da, eta, gehienez, 400 eurokoa.
b) Ez, inoiz ere ez.
c) Bai, eta eguneko kuota, gutxienez, 30 eurokoa izango da, eta, gehienez, 5000 eurokoa.
d) Bai, baina isun-zigorra beste zigor nagusi baten zigor erantsi gisa baino ezin da ezarri.

6 - Lucas eta Mario indarra erabiliz egindako lapurreta-delitu baten egile gisa kondenatu dituzte, eta Adela delitu beraren konplize edo sopikun gisa kondenatu dute. Nola erantzuten dute arlo zibilean?
a) Lucasek eta Mariok baino ez dute erantzukizun zibila, era solidarioan.
b) Lucasek eta Mariok era solidarioan erantzungo dute beren kuotengatik, eta modu subsidiarioan Adelaren kuotagatik.

c) Lucasek, Mariok eta Adelak era solidarioan erantzungo dute.
d) Lucasek du zuzeneko erantzukizun zibila. Mariok eta Adelak subsidiarioki baino ez dute erantzungo.

7 - Luisek 15 urte ditu, eta Zigor Kodean ebasketa-delitu gisa tipifikatutako egitatea gauzatu du. Zer neurri ezar dakioke?
a) Erregimen itxiko, erregimen erdiirekiko edo erregimen irekiko barneratzea.
b) Ezin zaio erantzukizunik exijitu Adingabeen Erantzukizun Penala arautzen duen urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoaren arabera; aitzitik, Kode Zibilean eta indarrean dauden gainerako xedapenetan adingabeen babesari buruz ezarritako arauak aplikatuko zaizkio.
c) Adingabeen Erantzukizun Penala arautzen duen urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoaren 7.1. artikuluan aurreikusitakoak, erregimen itxiko barneratzea salbu.
d) Isun-zigorra baino ezin zaio ezarri.

8 – Adingabeen epaileak ezar al diezaioke adingabe bati Ministerio Fiskalak edo akusazio partikularrak eskaturiko neurriak baino eskubideen murrizketa handiagoa dakarren neurririk?
a) Bai, baldin eta legez aurreikusita badago adingabeak egin duen deliturako.
b) Bai, baina adingabeak delitu astuna egin badu bakarrik.
c) Ez, inola ere ez.
d) Bai, edozein kasutan.

9 – Adolfok intimitatearen edo bizitza pribatuaren aurkako delitua egin du 15 urteko Ana alabaren aurka. Victoria adingabearen ama eta Adolforen emaztea da, eta badaki Adolfok delitu hori egin duela. Salaketa jarri behar al dio?
a) Egitateen berri eman behar dio Ministerio Fiskalari. Hori baino ez.
b) Egitateak salatzera behartuta dago, beste edozein herritar bezala.
c) Ez du gertaerak salatzeko betebeharrik.
d) Kereila jarri behar du.

10 - Nor da eskudun Zigor Kodearen 249.1 artikuluan aurreikusitako maula elektronikoaren delitua epaitzeko?
a) Iruzurraren zenbatekoa 400 eurotik gorakoa bada, Auzialdiko Auzitegiaren Arlo Penaleko Atala; bestela, Auzialdiko Auzitegien Instrukzioko Atala.
b) Auzialdiko Auzitegien Instrukzioko Atala, iruzurraren zenbatekoa edozein dela ere.
c) Auzialdiko Auzitegiaren Arlo Penaleko Atala, iruzurraren zenbatekoa edozein dela ere.
Arlo Penaleko Epaitegia.

11 – Auziaren instrukzioan, Instrukzioko Ataleko epaileak debekatu al dezake biktimari buruzko informazioa eta haren irudiak argitaratzea?
a) Bai, ofizioz edo alderdietako edozeinek eskatuta, biktimaren intimitatea edo hari zor zaion errespetua babesteko beharrezkoa denean.
b) Bai, ofizioz edo alderdietako edozeinek eskatuta, biktima adingabearen edo desgaitasuna duen biktimaren intimitatea babesteko beharrezkoa denean.
c) Bai, Ministerio Fiskalak eskatuta bakarrik, biktima adingabearen edo desgaitasuna duen biktimaren intimitatea babesteko beharrezkoa denean.
d) Bai, Ministerio Fiskalak eskatuta bakarrik, biktimaren intimitatea edo hari zor zaion errespetua babesteko beharrezkoa denean.

12 – Albak baldintzapeko mehatxu-delitua egin du, eta bere helburua lortu du. Zer prozedura baliatu behar da erantzukizun penala eskatzeko?
a) Delitu jakin batzuk azkar epaitzeko prozedura.
b) Prozedura laburtua.
c) Delitu arinengatiko prozedura.
d) Prozedura arrunta edo sumarioa.

13 - Nor dago zinpekoen epaimahaiko kide izateko ezgaitua?
a) Erregea.
b) Segurtasun Indar eta Kidegoetako jarduneko kideak.
c) Akusatzaile partikularra edo pribatua.
d) Dolozko delituagatik kondenatuak, errehabilitazioa lortu ez badute.

14 – Santos atxilotu dute, sexu-erasoaren delitu bat egotzita, zeinean indarkeriaz jardun baitzuen. Atxilotuak aurrekari penalak ditu beste biktima batzuen aurkako sexu-erasoagatik. Instrukzioko Ataleko epaileak, guardiako funtzioetan, erabaki al dezake Santos behin-behinekoz espetxeratzea?
a) Bai, baina Ministerio Fiskalak edo akusazio partikularrak eskatu behar du kautela-neurri hori.
b) Bai, ofizioz edo Ministerio Fiskalak edo akusazio partikularrak eskatuta.
c) Ez, atxilotuak biktimaren ondasun juridikoen aurka jotzeko arriskurik ez dagoelako.
d) Ez, ez delako egiaztatu atxilotuak ihes egiteko arriskurik duenik.

15 – Epaileak ezar al diezaioke atxilotu bati egun jakin batzuetan *apud acta* agertzeko betebeharra?
a) Bai, baina delitu astun batengatik atxilotu badute bakarrik.
b) Bai, baina fidantzarik gabe behin-behineko askatasunean egon behar duen ikertuari edo auzipetuari bakarrik.
c) Bai, baina fidantzarekin behin-behineko askatasunean egon behar duen ikertuari edo auzipetuari bakarrik.
d) Bai, fidantzarekin edo fidantzarik gabe behin-behineko askatasunean egon behar duen ikertuari edo auzipetuari.

16.- Zer arazo edo gai ezin du planteatu defentsak aurretiazko entzunaldian?
a) Frogak egitea, baldin eta alderdiek horien berri izan badute defentsa-idazkia aurkezteko unean.
b) Organo judizialaren eskumenik eza.
c) Txostenak sartzea.
d) Ahozko epaiketa etetea.

17 – XXX, SL. sozietatea akusatuta dago prozesu batean: adostasun batera iritsi nahi badu, nork eman behar du akusatutako sozietatearen baimena adostasun horretara iristeko?
a) Sozietatearen abokatu defendatzaileak.
b) Sozietatearen prokuradoreak.
c) Sozietatearen ordezkari berariaz izendatuak, edozein kasutan.
d) Sozietatearen ordezkari berariaz izendatuak, betiere ahalorde berezia badu.

18 – Bide-segurtasunaren aurkako delitu batengatik akusatu dute Juan. Ahozko epaiketaren egunean, Juanen abokatu defendatzailea ez da agertu, eta ez du horretarako justifikaziorik eman. Egin al daiteke epaiketa Juanen letradurik gabe?
a) Ez, inola ere ez.
b) Bai, baina Ministerio Fiskalak eskatu eta Juanek aurka egiten ez badu bakarrik.
c) Bai, delitu horren zigorrak bi urteko espetxealdia gainditzen ez duelako.
d) Bai, letraduaren absentzia justifikatu gabea izan delako.

19 – Zer gertatzen da lekuko batek ahozko epaiketan egindako deklarazioa eta sumarioan egindakoa funtsean desberdinak badira?
a) Epaileak zuzenean erabakiko du lekukotza egitea lekukotza faltsuaren delituagatik.
b) Epaileak kritika zintzoaren erregelen arabera baloratuko ditu epaian kontraesan horiek.
c) Deklarazioa ezin da kontuan hartu epaiaren oinarrietan.
d) Alderdietatik edozeinek eska dezake lekukoak sumarioan egindako deklarazioa irakurtzea. Behin hori irakurrita, epaileak lekukoari gonbita luzatuko dio bere adierazpenen arteko ezberdintasunak edo kontraesanak azal ditzan.

20 – Zer errekurtso jar daiteke Justizia Administrazioaren letraduak emandako antolaketa-eginbide baten aurka?
a) Berraztertze-errekurtsoa edo zuzeneko apelazio-errekurtsoa.
B) Berrikuspen-errekurtsoa.
c) Berraztertze-errekurtsoa, berrikuspen-errekurtsoa zuzenean jar daitekeen kasuetan izan ezik.
d) Kexa-errekurtsoa.

21 – Indarra erabiliz egindako lapurreta-delitu batengatik kondenatu dute Jesus, eta 2 urteko espetxe-zigorra ezarri diote, bai eta kaltedunari 3.000 euro ordaindu beharra ere, erantzukizun zibila dela eta. Jesusek aurrekari penal bat du, ezin ezereztuzkoa, ebasketa-delitu batengatik, eta 500 euro baino ez ditu ordaindu kondenako erantzukizun zibiletik. Epaileak eman al diezaioke Jesusi 2 urteko espetxe-zigorraren exekuzioa etetearen onura?
a) Ez, zigortuak aurrekari penalak dituelako eta erantzukizun zibila osorik ordaindu ez duelako.
b) Bai, ohiko erruduna ez delako eta erantzukizun zibilaren zati bat ordaindu duelako.
c) Ez, ezarritako zigorra 2 urteko espetxealdira iristen delako.
d) Bai, espetxe-zigorra ez delako 2 urte baino luzeagoa.

22 – Sofiari urtebete eta sei hilabeteko espetxe-zigorra ezarri diote maula-delitu batengatik, 2026ko apirilaren 2ko epaiaren bidez ezarri ere. Epai hori urte bereko apirilaren 25ean bihurtu da irmo. 2026ko maiatzaren 5eko auto baten bidez, epaileak erabaki du espetxe-zigor horren exekuzioa 3 urtez etetea. Noiztik zenbatzen da etendura-epea?
a) 2026ko apirilaren 2tik.
b) 2026ko maiatzaren 5etik.
c) 2026ko apirilaren 25etik.
d) Epaileak etendura erabaki duen autoan adierazitako egunetik.

23 – Zigor hauetako zein ezar dakieke, besteak beste, pertsona juridikoei?
a) Lokal eta establezimenduak ixtea, kuoten araberako isuna edo proportziozkoa, eta pertsona juridikoa desegitea.
b) Proportziozko isuna, espetxealdia eta dirulaguntza eta laguntza publikoak lortzeko desgaikuntza.
c) Pertsona juridikoa desegitea, sufragio pasiboko eskubidea baliatzeko desgaikuntza berezia, eta kuoten araberako isuna edo proportziozkoa.
d) Etorkizunean jarduerak egiteko debekua, baldin eta jarduera horietan delitua egin, ahalbideratu edo estali bada, pertsona juridikoa desegitea, eta komunikatzeko debekua.

24 - Kautela-neurri hauetatik, zein ezin zaio ezarri pertsona juridiko bati?
a) Pertsona juridikoei ezin zaie kautela-neurririk ezarri.
B) Lokalak edo establezimenduak aldi baterako ixtea.
c) Dirulaguntza eta laguntza publikoak lortzeko desgaikuntza.
d) Jarduera sozialak etetea.

25 – Zer kasutan eman dezake epaileak genero-indarkeriaren edo etxeko indarkeriaren biktimentzako babes-agindu bat?
a) Zigor Kodearen 173.2 artikuluan aipatutako pertsonaren baten aurkako delituren bat egin izanaren zantzu oinarridunak daudenean eta biktimarentzako arrisku-egoera objektiboa denean.
b) Ministerio Fiskalak eta akusazio partikularrak eskatzen duten guztietan eman behar du.
c) Biktimarentzako arrisku-egoera objektiboa dagoen guztietan eman behar du.
d) Zigor Kodearen 173.2 artikuluan aipatutako pertsonaren baten bizitzaren, osotasun fisiko edo moralaren, sexu-askatasunaren, askatasunaren edo segurtasunaren aurkako delitua edo falta egin izanaren zantzu oinarridunak daudenean eta biktimarentzako arrisku-egoera objektiboa sortzen denean.

ERRESERBAKO GALDERAK

26 - Prozedura zibil baten ardura duen epaile batek jakiten badu litekeena dela genero-indarkeriazko egintza bat gauzatu izana, eta egintza horrek prozedura penal bat hasarazi badu, nola jokatu behar du?
a) Emakumearen aurkako Indarkeriaren arloko Atal eskudunaren alde inhibitu behar da, salbu eta ahozko epaiketaren fasea hasita badago.
b) Eskumena duen Auzialdiko Auzitegiko Emakumearen aurkako Indarkeriaren arloko Atalaren alde inhibitu behar da, ahozko epaiketaren fasea hasita badago ere.
c) Berehala zitatu behar ditu alderdiak Ministerio Fiskalarekin agerraldia egitera, zeina hurrengo 24 orduetan egingo den, hark ezagut ditzan gertatutako egitateei buruz garrantzitsuak diren datu guztiak.
d) Seme-alaba adingaberik bada, inhibitu egin behar da Auzialdiko Auzitegiko Haurren eta Nerabeen aurkako Indarkeriaren arloko Atalen alde.

27 - Nork ez du babes-agindua eskatzeko ahalmenik?
a) Gertakarien berri izan duten laguntza-erakundeek.
b) Ministerio Fiskalak.
c) Akusazio partikularrak.
d) Biktimaren amak.

ADMINISTRAZIO-ALORRAREN ETA ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIEN ALORRAREN ESPEZIALITATE JURIDIKOA

1 - Administrazio-prozedurako informazio publikoaren izapideari dagokionez, baieztapen hauetatik, zein da zuzena?
a) Interesduna ez bada agertzen izapide horretan, ezin izango du prozeduraren ebazpenari buruzko administrazio-errekurtsorik aurkeztu.
b) Izapide hori egiteko erabakia hartu ahal izango da soilik prozedura zehatz hori arautzen duen legeak hala aurreikusten duenean.
c) Izapide horretan alegazioak aurkezten dituztenek eskubidea dute Administrazioaren aldetik erantzun arrazoitua jasotzeko.
d) Izapidean agertzea, berez, aski da prozeduran interesdunaren izaera lortzeko.

2 - Administrazio-errekurtsoa aurkeztuta, eten egiten da aurkaratutako ebazpenaren exekuzioa?
a) Aurkaratzearen oinarria zuzenbidean erabat deusez izateko kausetako bat bada soilik.
b) Ez, baina errekurtsoa ebatzi behar duen organoak eten ahal izango du aurkaratutako ebazpenaren exekuzioa, kalte konponezinak edo konpongaitzak sor baditzake.
c) Bai, beti.
d) Errekurtsoa xedapen orokor baten aurka aurkeztu bada soilik.

3 - Konstituzio Auzitegiak konstituzioaren aurkakotzat jo du lege bat, eta lege hori aplikatzeak kalteak eragin dizkio partikular bati. Kasu hauetako zeinetan eman behar da kalte-ordaina?
a) Partikularrak, nahitaez azken auzialdian, epai irmo bat jaso duenean, kaltea eragin zuen administrazio-jarduketaren aurkako errekurtsoa ezestekoa, baldin eta geroago deklaratutako konstituzio-aurkakotasuna alegatu bazuen.
b) Partikularrak, edozein auzialditan, epai irmo bat jaso duenean, kaltea eragin zuen administrazio-jarduketaren aurkako errekurtsoa ezestekoa, baldin eta geroago deklaratutako konstituzio-aurkakotasuna alegatu bazuen.
c) Partikularrak, nahitaez azken auzialdian, epai irmo bat jaso duenean, kaltea eragin zuen administrazio-jarduketaren aurkako errekurtsoa ezestekoa, geroago deklaratutako konstituzio-aurkakotasuna alegatu izana egiaztatu beharrik gabe.
d) Partikularrak epai irmo bat jaso duenean, kaltea eragin zuen administrazio-jarduketaren aurkako administrazio-errekurtsoa ezestekoa, baldin eta geroago deklaratutako konstituzio-aurkakotasuna alegatu bazuen.

4 - Gabriela zehapen-prozedura administratibo baten mende dago. Ebazpen-proposamenaren arabera, Gabrielari diruzko zehapena ezarri behar zaio. Gabrielak pentsatu du erantzukizuna aitortu eta/edo zehapena bere borondatez ordaintzea, prozedura ebatzi baino lehen. Zer ondorio izango ditu horrek?
a) Erantzukizuna aitortzeagatik edo borondatez ordaintzeagatik, gutxienez % 20ko murriztapena aplikatuko zaio proposatutako zehapenaren zenbatekoari. Murriztapenak ezin izango dira metatu eta, hartaz baliatzeko, ez dago administrazio-bidean jarritako akzio edo errekurtsoetan atzera edo uko egin beharrik.
b) Erantzukizuna aitortzeagatik edo borondatez ordaintzeagatik, gutxienez % 20ko murriztapena aplikatuko zaio proposatutako zehapenaren zenbatekoari. Murriztapenak ezin izango dira metatu eta, haietaz baliatzeko, administrazio-bidean jarritako akzio edo errekurtsoetan atzera edo uko egin beharra dago.
c) Gutxienez % 20ko murriztapenak aplikatuko zaizkio proposatutako zehapenaren zenbatekoari. Murriztapenak metatu egin daitezke eta, haietaz baliatzeko, ez dago administrazio-bidean jarritako akzio edo errekurtsoetan atzera edo uko egin beharrik.
d) Gutxienez % 20ko murriztapenak aplikatuko zaizkio proposatutako zehapenaren zenbatekoari. Murriztapenak metatu egin daitezke eta, haietaz baliatzeko, administrazio-bidean jarritako akzio edo errekurtsoetan atzera edo uko egin beharra dago.

5 - Marciali (Sevillan du egoitza) 100.000 euroko zehapena ezarri dio zuzendaritza nagusiaren maila duen Estatuko Administrazio Orokorreko organo batek. Egintzak amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta Marcialek pentsatu du administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzea egintzaren aurka. Zein organo judizialek izango du errekurtsoaz arduratzeko eskumena?
a) Madrilgo edo Sevillako Auzialdiko Auzitegiko Administrazioarekiko Auzien Atalak, Marcialek aukeratuta.
b) Madrilgo edo Sevillako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak, Marcialek aukeratuta.
c) Madrilgo Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak, beti.
d) Auzialdiko Auzitegi Zentraleko Administrazioarekiko Auzien Atalak.

6 - Administrazioarekiko auzi-errekurtso bat izapidetzeko onartu ondoren, administrazio-espedientea bidaltzeko eskatu zaio Administrazioari; baina horretarako legez ezarritako epeak igaro dira, eta ez dute bidali. Zer ondorio ditu horrek?

a) Jarduketak eten egingo dira harik eta administrazio-espedientea bidali arte, eta agintari edo enplegatu arduradunari hertsapen-isunak ezartzeko aukera egongo da.

b) Jarduketak artxibatu egingo dira eta egitateak Fiskaltzari jakinaraziko zaizkio, akzio penalik egikaritu behar bada ere.

c) Errekurtsogileak demanda formalizatzeko epea eman dakiola eskatu ahal izango du, eta Administrazioari ez zaio erantzunik onartuko espedientearekin batera ez badoa.

d) Errekurtsogileak demanda formalizatzeko epea eman dakiola eskatu ahal izango du, eta egiazkotzat joko dira hark emandako espedienteko datuak.

7 - Herritar talde batek agintari eskudunari jakinarazi dio manifestazio bat egingo duela. Agintaritza eskudunak hura aldatzea proposatu du, eta sustatzaileek administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzea erabaki dute. Zein auzitegi arduratuko da errekurtsoaz?

a) Auzitegi Nazionaleko Administrazioarekiko Auzien Sala.

b) Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Sala.

c) Auzialdiko Auzitegi Zentraleko Administrazioarekiko Auzien Atala.

d) Auzialdiko Auzitegiko Administrazioarekiko Auzien Atala.

8 - Adolfok administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri du egintza baten aurka, eta argudiatutako arrazoi bakarra da legez kanpoko xedapen orokor bat aplikatuz onartu zela egintza. Auzitegiak baietsi egin du administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, eta xedapen orokorraren legezkontrakotasun-arazoa planteatu du, baina ezetsi egin dute. Legezkontrakotasun-arazoa ezesteak eraginik izango al du Adolforen administrazioarekiko auzi-errekurtsoa baietsi zuen epaiaren ondoriozko egoera juridiko partikularrean?

a) Bai, legezkontrakotasun-arazoa ebatzi duen auzitegia administrazioarekiko auzi-errekurtsoa baietsi zuen bera bada.

b) Bai, beti.

c) Bai, legezkontrakotasun-arazoa ebatzi duen auzitegia Auzitegi Gorena izan bada.

d) Ez, inoiz ez.

9 - Administrazio publiko baten mendeko edo hari lotutako zuzenbide publikoko entitateek jar al dezakete administrazioarekiko auzi-errekurtsorik administrazio horren egintzen aurka?

a) Bai, baldin eta entitateak administrazio horrekiko berariazko autonomia-estatutu bat badu, legez emana.

b) Bai, baldin eta errekurtsoaren xedea haren helburuen eremuari eragiten dion egintza edo xedapen bat bada.

c) Bai, beti.

d) Ez, inoiz ez.

10 - Administrazioarekiko auzi-errekurtsoko frogari dagokionez, baieztapen hauetatik zein da zuzena?

a) Prozesuan frogaldia onartuko da soilik auzi-jartzaileak demandan hala eskatzen duenean edo demandatuak erantzunean hala eskatzen duenean, bai eta demanda-erantzunetik auzia ebazteko egitate berri eta garrantzitsuak ondorioztatzen direnean eta errekurtsogileak frogaldia onartzeko eskatzen duenean ere.

b) Ez da frogaldirik onartuko, baldin eta, auzitegiaren iritziz, administrazio-espedientean nahikoa egitatezko elementu badago gaia ebazteko.

c) Salek beren magistratuetako bati eskuordetu ahal izango diote froga-eginbide guztiak edo batzuk egitea.

d) Aditu-frogen ondoreak ezin izango dira hedatu beste prozedura judizial batzuetara.

11 - Salvadorrek administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu nahi du. Hala ere, aldez aurretik, kautelazko neurri bat hartzeko eskatzea pentsatu du, kasuan presa bereziko inguruabarrak daudela alegatuta. Hartu dezake epaileak edo auzitegiak neurri hori, aurretik administrazio demandatuari entzun gabe?

a) Bai; presa bereziko inguruabarrak ikusten baditu, auto bidez hartu ahal izango du neurria, aurretik administrazio demandatuari entzun gabe, eta auto horren aurka ezin izango da errekurtsorik jarri.

b) Bai; presa bereziko inguruabarrak ikusten baditu, auto bidez hartu ahal izango du neurria, aurretik administrazio demandatuari entzun gabe, eta auto horren aurka apelazio-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da.

c) Ez; aurretik administrazio demandatuari entzun beharko dio betiere, baina, presa bereziko inguruabarrak kontuan hartuta, egun baliogabeak baliodun bihurtu ahal izango ditu.

d) Ez; aurretik administrazio demandatuari entzun beharko dio betiere, baina, presa bereziko inguruabarrak kontuan hartuta, kautela-neurrien intzidentearen epeak murriztea erabaki ahal izango du.

12 - Eladiok administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri zuen xedapen orokor baten aurka. Errekurtsoa baietsi egin da eta xedapena baliogabetu egin da. Zer ondore izango ditu epaiak irmo bihurtzen denean?
a) Eladiori dagokionez bakarrik izango ditu ondoreak, eta ezin izango dira hedatu hirugarrenetara.
b) Eladiori dagokionez bakarrik izango ditu ondoreak, baina hirugarrenetara hedatzeko aukera egongo da.
c) Epaia irmo bihurtzen den egunetik aurrera ondore orokorrak izango ditu.
d) Xedapen orokor bat deuseztatzen duten epai irmoek ondore orokorrak izango dituzte deuseztaturiko xedapena argitaratu zen aldizkari ofizial berean haien epaitza eta deuseztaturiko manuak argitaratzen diren egunetik.

13 - Angelinak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri du zehapen bat ezartzen dion erabaki baten aurka Auzialdiko Auzitegiko Administrazioarekiko Auzien Atalean. Auzigaiaren zenbatekoa 5.000 eurokoa da. Epaiaren aurka jar daiteke apelazio-errekurtsorik?
a) Bai, beti; eta apelazio-errekurtsoaz Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Sala arduratuko da.
b) Bai, baldin eta epaiak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa onartezintzat jotzen badu, eta apelazio-errekurtsoaz Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Sala arduratuko da.
c) Ez, inola ere ez, zenbatekoa ez delako 30.000 eurotik gorakoa.
d) Ez, inola ere ez, epaiaren ondoreak ezin direlako hedatu.

14 - Rodrigok administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri du. Bi alderdiak eztabaidari amaiera ematen dion akordioa lortu dute eta prozedura amaitu egin da; baina Administrazioak ez du bete akordioa. Eska al dezake Rodrigok akordioaren nahitaezko exekuzioa?
a) Ez, baina Administrazioari erreklamatu ahal izango dio akordioa bete dezala, eta, eskatutakoa hiru hilabeteko epean betetzen ez badu, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango du Administrazioaren jarduterik ezaren aurka.
b) Bai, akordioan bertan ezarritako epea igarotakoan. Akordioan ez bada eperik ezartzen akordiotik eratorritako betebeharrak betetzeko, betetzeko eskatu ahal izango dio Administrazioari, eta, hiru hilabete igaro ondoren, nahitaezko exekuzioa eskatu ahal izango du.
c) Bai, akordioan bertan ezarritako epea igarotakoan. Akordioan ez bada eperik ezartzen akordiotik eratorritako betebeharrak betetzeko, betetzeko eskatu ahal izango dio Administrazioari, eta, bi hilabete igaro ondoren, nahitaezko exekuzioa eskatu ahal izango du.
d) Administrazioari akordioa bete dezan eskatzen zaionetik hiru hilabete igarotakoan bakarrik.

15 - Administrazio Publikoen Ondareari buruzko Legearen arabera, eman al daiteke jabari publikoko ondasun baten erabilera pribatiborako baimenik lau urterako baino gehiagorako?
a) Bai, baldin eta ondasuna zerbitzu publiko bat emateko erabiltzen bada, gehienez ere hirurogeita hamabost urterako.
b) Bai, baldin eta ondasuna zerbitzu publiko bat emateko erabiltzen bada, gehienez ere berrogei urterako.
c) Bai, baina ondasuna instalazio desmuntagarriekin edo ondasun higigarriekin bakarrik okupatzen bada.
d) Ez, inoiz ez.

16 - Emiliari lursail bat desjabetu diote eskola bat eraikitzeko. Bost urte igaro dira Administrazioak lursailaren jabetza hartu zuenetik eta obrak ez dira hasi eta lursaila ez da afektatu edo atxiki onura publikokotzat edo gizarte-interesekotzat deklaratu den beste helburu baterako. Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen arabera, baieztapen hauetatik zein da zuzena?
a) Emiliak ezin izango du baliatu itzulketa-eskubidea harik eta Administrazioak eskola ez eraikitzeko erabakia formalki jakinarazi arte.
b) Emiliak ezin izango du baliatu itzulketa-eskubidea harik eta Administrazioak lursailaren jabetza hartu zuenetik hamar urte igaro arte.
c) Emiliak ezin izango du baliatu itzulketa-eskubidea, baina desjabetze-erabakia ofizioz berrikusteko eskatu ahal izango du.
d) Emiliak itzulketa-eskubidea baliatu ahal izango du, legeak zehazten duen kalte-ordaina ordainduta.

17 - Administrazioak sektore publikoko kontratu bat formalizatu du, eta administrazio-klausula partikularren agirian ez da aurreikusten kontratua aldatzeko aukerarik. Administrazioak egin al dezake kontratuaren aldaketarik, balio erantsiaren gaineko zerga (BEZa) kontuan izan gabe kontratuaren hasierako zenbatekoaren % 50eko aldaketa dakarrenik?
a) Bai, baldin eta aldaketak legez aurreikusitako baldintzak betetzen baditu eta kontratistak aldez aurretik idatzizko adostasuna ematen badu.

b) Ez, ezin baita egin administrazio-klausula partikularren agirian aurreikusita ez dagoen aldaketarik.
c) Ez, ezin baita aldaketarik egin kontratuaren diru-zenbatekoan dakarren aldaketak hasierako prezioaren ehuneko % 20 (BEZik gabe) gainditzen badu.
d) Bai, baldin eta aldaketak legez aurreikusitako baldintzak betetzen baditu, kontratistak aldez aurretik idatzizko adostasuna eman beharrik izan gabe.

18 - Atzerritarrei buruzko legedian aurreikusitako baldintzak betetzen badira, badu atzerritar egoiliarrak eskubiderik seme-alabak Espainian berarekin berrelkartzeko?
a) Bai, seme-alaba guztiak, adina edozein dela ere.
b) Bai, baldin eta hemezortzi urtetik beherakoak badira edo osasun-egoera dela-eta objektiboki beren premiei erantzuteko gai ez diren pertsona desgaituak badira.
c) Ez, bikotekidea soilik berrelkartu dezake berarekin Espainian.
d) Ez, atzerritarrei buruzko legediak ez baitu familia berrelkartzeko eskubiderik aitortzen.

19 - Noraino iristen da erreklamazio ekonomiko-administratiboak ebazteko eskumena duen organoaren ardura?
a) Interesdunek planteatu dituzten egitatezko eta zuzenbideko gaietara bakarrik.
b) Interesdunek planteatu dituzten egitatezko eta zuzenbideko gaietara, bai eta espedienteak eskaintzen dituen gainerako guztietara ere, baldin eta interesdunei alegazioak egiteko erakutsi ondoren ez badiote berariaz aurka egiten haiek aztertzeari.
c) Espedienteak eskaintzen dituen egitatezko eta zuzenbideko gai guztietara, interesdunek planteatu zein ez, eta kontuan hartu gabe erreklamaziogilearen hasierako egoera okerragotu dezaketen.
d) Espedienteak eskaintzen dituen egitatezko eta zuzenbideko gai guztietara, interesdunek planteatu zein ez; baina inolaz ere ezin izango da okerragotu erreklamaziogilearen hasierako egoera.

20 - Sektore publikoko kontratuak adjudikatzeko prozedura ireki arruntetan, behartuta al dago eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzailea behin betiko berme bat eratzera kontratazio-organoaren eskura?
a) Bai, eta kontratazio-organoak ezin izango du inola ere salbuetsi adjudikazioduna behin betiko bermea eratzeko betebeharretik.
b) Salbuespen gisa bakarrik, kontratazio-organoak beharrezkotzat jotzen duenean eta espedientean arrazoituta justifikatzen duenean.
c) Bai. Hala ere, kontratuaren inguruabarrak kontuan hartuta, kontratazio-organoak adjudikazioduna salbuetsi dezake behin betiko bermea eratzeko betebeharretik, administrazio-klausula partikularren agirian behar bezala justifikatuta.
d) Obra-kontratuetan edo obra-emakidako kontratuetan bakarrik.

21 - Nuriak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri nahi du bere kalterako den egintza baten aurka, eta ez dago hirugarren interesdunik. Nola hasiko da errekurtsoa?
a) Idazki bidez, eta idazki horretan zer egintza aurkaratzen den adierazi eta errekurtsoa jarritzat har dadila eskatu baino ez da egingo; hala ere, demanda bidez ere hasi ahal izango da: aurkaratutako egintza zehaztu, eta zuzenbidearekin bat zergatik ez datorren arrazoituta.
b) Idazki bidez, eta idazki horretan zer egintza aurkaratzen den adierazi, errekurtsoa jarritzat har dadila eskatu eta zuzenbidearekin bat zergatik ez datorren labur-labur azaldu baino ez da egingo, eta ez da demanda hasteko aukerarik izango.
c) Idazki bidez, eta idazki horretan zer egintza aurkaratzen den adierazi eta errekurtsoa jarritzat har dadila eskatu baino ez da egingo, eta ez da demanda hasteko aukerarik izango.
d) Edozein kasutan, demandaren bidez, aurkaratutako egintza zehaztu eta zuzenbidearekin bat zergatik ez datorren arrazoituta.

22 - Interesdunak, berak eskatuta hasitako prozedura batean, eskaeran atzera egitea erabaki du. Prozeduran pertsonatu diren gainerako interesdunei jakinarazi zaie atzera egin duela, baina horietako inork ez du eskatu prozedurak jarraitu dezan. Zer ondorio izango ditu atzera egiteak?
a) Administrazioak besterik gabe onartuko du atzera egitea, eta interesdunak ezin izango du beste eskaerarik egin xede berarekin.
b) Administrazioak besterik gabe onartuko du atzera egitea, non eta ez den legez onartezina.
c) Administrazioak besterik gabe onartuko du atzera egitea, eta prozedurak ezin izango du inolaz aurrera jarraitu.
d) Administrazioak besterik gabe onartuko du atzera egitea; baina, prozedura hasteko gaia interes orokorrekoa bada edo gai hori mugatzeko eta argitzeko komeni bada hezurmamitzea, Administrazioak erabaki dezake interesdunari baino ez eragitea atzera egiteak, eta aurrera jarraitzea prozedurak.

23 - Administrazioarekiko auzien prozesuetako epaiak exekutatzeari dagokionez, baieztapen hauetatik zein da zuzena?
a) Administrazioa zenbateko likido bat ordaintzera kondenatzen denean, epai irmoa bete behar duen organoari jakinarazi eta nahitaez exekutatzeko eskatzen zaionetik hiru hilabete igaro ondoren, agintaritza judizialak, ordaintzeko ardura duen organoari entzun eta gero, bi puntu gehitu ahal izango dio sorrarazitako legezko interesa, baldin eta exekuzioan ardurarik eza atzematen badu.
b) Epaia betetzeak Ogasunari nahasmendu larria eragiteko arriskua epai irmo batean Administrazioaren aurrean aitortutako eskubide edo interes legitimoak desjabetzeko onura publikoko edo interes sozialeko kausa da.
c) Epaiaren arabera ordaindu beharreko zenbatekoa ezin izango da konpentsatu Administrazioak errekurtsogilearen aurka dituen kredituekin.
d) Ez da onartuko aurrekontu-aldaketarik egitea Administrazioari ezarritako kondenaren zenbatekoa ordaintzeko.

24 - Subjektu hauetatik, norekin egingo dira desjabetze-espedienteko jarduketak?
a) Desjabetzekoa den gauzaren jabearekin edo eskubidearen titularrarekin bakarrik.
b) Desjabetzekoa den gauzaren jabearekin edo eskubidearen titularrarekin, bai eta, hala eskatzen badute eta beren izaera behar bezala egiaztatzen badute, desjabetzekoa den gauzaren gaineko eskubide errealen eta zuzeneko interes ekonomikoen titular direnekin, errentariekin izan ezik.
c) Desjabetzekoa den gauzaren jabearekin edo eskubidearen titularrarekin, bai eta, hala eskatzen badute eta beren izaera behar bezala egiaztatzen badute, desjabetzekoa den gauzaren gaineko eskubide errealen eta zuzeneko interes ekonomikoen titular direnekin, eta errentarekin ere bai, landa-lurreko edo hiri-lurreko ondasun higiezinen kasuan.
d) Titulartasun-presuntzioa sortzen duten erregistro publikoetan jabe edo titular gisa agertzen denarekin bakarrik.

25 - Guillermo funtzionario publikoa da, eta administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri nahi du bere estatutu-eskubideak defendatzeko, funtzionario publiko mugiezinak zerbitzutik aldentzea ez dakarren langile-arloko egintza baten aurka. Prokuradore bati eman beharko dio ordezkaritza eta/edo abokatu baten laguntzaz jardun beharko du?
a) Ez, bere kabuz agertu ahal izango da.
b) Bere kabuz agertu ahal izango da, errekurtsoa pertsona bakarreko organo batean aurkezten bada; bestela, prokuradore bati eman beharko dio ordezkaritza eta abokatu baten laguntzaz jardun beharko du.
c) Abokatu baten laguntzaz jardun beharko du beti; eta errekurtsoa kide anitzeko organo batean jartzen bada, gainera, prokuradore bati eman beharko dio ordezkaritza.
d) Abokatu baten laguntzaz jardun beharko du, eta prokuradore bati eman beharko dio ordezkaritza, beti.

ERRESERBAKO GALDERAK

1 - Txosten edo irizpenak onartzeak balio du administrazio-prozeduretan ebazpena arrazoitzeko?
a) Estatuko Abokatutzaren txostena edo Estatu Kontseiluaren irizpena denean bakarrik.
b) Ez, baina ez dago eragozpenik txostenaren edo irizpenaren edukia ebazpenean hitzez hitz kopiatzeko.
c) Bai, ebazpenaren testuari gehitzen zaizkionean.
d) Bai, nahikoa da txostenaren edo irizpenaren espediente-zenbakia aipatze hutsa.

2 - Egintza baten egile den Administrazioa legitimatuta al dago egintza hori administrazioarekiko auzien jurisdikzioan aurkaratzeko?
a) Ez, administrazio publikoak beste administrazio publiko batzuetatik datozen egintzak aurkaratzeko bakarrik baitaude legitimatuta.
b) Kontratazio-arloko errekurtso bereziak eta erreklamazioak ebazteko ardura duten administrazio-organoek hartutako erabakiak direnean bakarrik.
c) Bai, interes publikorako kaltegarri deklaratu ondoren, legeak ezarritako moduan.
d) Legeak berariaz baimentzen duenean soilik.